

ELKARRIZKETA: DAVID HOPKINS • EKARPENAK: KULTURARTEKO
HEZKUNTZA • GALDEIDAZUE: BLANCA KEREJETA • BAIONAKO
EUSKAL MUSEOA • ATZEKO ATETIK: JULIO IBARRA

hh
hik hasi

125

4 EURO • 2008KO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Ondoezik dauden ikasleak
Eskolak etxean eta ospitalean
jasotzeko aukera



MIREN NUNCA MAIS!

Pako Aristi
Eider Eibar

(10 urtetik aurrera)

*Miren Galizian galdu zen behin, Santiagoko kaleetan zehar.
Galduta zebilela, gurasoak aurkitu nahi zituen,
edo gurasoek bera aurki zezaten.
Baina bitartean, abentura zirraragarriak gertatu zitzaizkion...*



ILUNORDUAK ETA ARGILAUDENAK

Joxantonio Ormazabal
Elena Odriozola

(12 urtetik aurrera)

*Material poetikoz egindako liburua edo poeta batek egindako etxea.
Leiho batzuetatik argia sartzen da, eta beste batzuetatik iluna.
Haurrentzat bezala helduentzat ere atek irekita dauzka etxe honek.*



PAULAREN SEIGARREN ATZAMARRA

Katixa Agirre
Patxi gallego

(10 urtetik aurrera)

*Paulak ezkerreko eskuan sei atzamar ditu,
behatz txikiaren ondoan beste txikiago bat baitauka. Eta ez hori bakarrik:
seigarren hatz txiki horrek botere bereziak ematen dizkio Paulari,
seigarren zentzumen antzeko bat,
jendeak zer pentsatzen duen jakiteko ahalmena dakarkiona.*



aurkibidea



8
gaia

ONDOEZIK DAUDEN IKASLEAK

Gaixotasunen bat duten edo ikastetxera joaten uzten ez dien arazoren bat duten ikasleek, etxean eta ospitalean jaso ditzakete eskolak. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak horretara bideratutako zerbitzuak eskaintzen dituzte.



16
elkarrizketa

DAVID HOPKINS

Londresko unibertsitateko irakasleak esan digu, hezkuntzak, ez duela soilik irakaskuntzara mugatu behar; eskolak, ekarpena egin behar diola gizarteari. Hezkuntza erreformen inguruan hitz egin dugu David Hopkinsekin.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ONDOEZIK DAUDEN IKASLEAK.

ESKOLAK ETXEAN ETA OSPITALEAN JASOTZEKO AUKERA

16 elkarrizketa

DAVID HOPKINS

24 esperientziak

Astronomia era dibertigarrian ikasiz

26 esperientziak

Argitxo egutegiak

28 ekarpena

Kulturarteko hezkuntza

Berdintasuna eta aniztasuna oinarri

32 galdeidazue

Haurrek, elkarren arteko gatazkak haien artean konpondu behar al dituzte? Kasu horretan jazarpenak izateko aukera handiagoa al da? Zer egin behar dute irakasleek?

Blanca Kerejeta

35 berriak

40 nora joango gara?

Baionako euskal museoa

Euskal Herriari begirada lapurtarra

42 Atzeko atetik

Julio Ibarra

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Olatz Lasagabaster. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Donostia ospitaleko gela. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-I-17). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala otsaila

Bazen ordua norbaitek argi adierazteko eskolak politika landu egin behar duela



Bereiztu egin behar da, gure ustez, politika eta alderdikeria, bazterkeria...

Eskoletan politikaz ez dela hitz egin behar zabaldu da azken 25 urteotan...

Frei Betto teologo eta pedagogo brasildarrak dioenez, gosaltzeko zer dugun edo ez dugun ere, politika zehatzen ondorioa da.

Eusko Jurlaritzak Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntza Plana aurkeztu du. Hezkuntza alorrari dagokionean, *Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan Hezi* izeneko programa garatuko du. Plan horrek, indarkeriari zilegitasuna kentzea izango du xede nagusia.

Ekimena, bere garapenean, interesgarria da, oso. Euskal Herriak bizi duen egoera dela medio, herri guztietan biktimak aurkitzea lan erraza izango da. Denetan dago hildakoa, erasotua, mehatxatua, atxilotua, espetxeratua eta torturatua dagoen edo izan den jendea, tamalez.

Asko eta asko hitz egin da elkarbizitzaz, tolerantziaz, inklusibitateaz eta abar. Lanak eta esperientziak ere burutu dira arlo horien inguruan, bide horietan sakontzea egokia da. Koska, ordea, horren guztiaren abiapuntuan izango da, orain ere.

Teoria mailan adostasunak aurkitzea ez dirudi lan nekeza izango denik. Hala ere, hori guztia praktikara erama-

terakoan sortzen dira ezintasunak, hori guztia praktikara nola ekarri inguruan, alegia. Ezinbestekoa da, abiapuntuan, hau da, biktimak definitu eta izendatzerakoan, biktima guztiak kontuan izatea. Eta eskola, noski, ez dago hortik kanpo.

Ez genituzke betiko eskema zaharrak errepikatu behar. Biktimak aipatzerakoan biktima batzuk alboratzen baditugu abiapuntutik bertatik, horrek betiko bazterkeriara eramango gaitu beste behin.

Politika egin behar ez den horren aitzakian, ezin da ere elkarbizitza eskola komunitate bakoitzeko gai isolatu gisa hartu. Dagoeneko badakigu, eskolan gertatzen denak kanpoan eragiten duela, eta alderantziz, kanpoan gertatzen denak eragina duela eskolan.

Beraz, eskolak hor kanpoan dugun, eta partaide garen, mundu zabal horretako komunitate guztia izan behar du kontuan, ikuspegi globalaz aritzea besterik ez dago.

Ezin dugu ahantzi ere zein inguma-

ritan bizi garen: nor maitatu behar dugun eta nor ez ezartzen zaigun honetan, ideiak epaibidean ipini diren honetan, edo demokratikoak omen diren hauteskundeetan herritar batzuei hautagai izateko eskubidea zalantzan jartzen zaienean, eta hainbat hautesleri botoa emateko eskubidea ukatzen zaienean, Elkarbizitza eta Bakea sustatu nahi ditugu gure eskoletan. Indarkeriak zilegitasunik ez duela irakatsi nahi diegu gure ikasleei... Lan nekeza,ударik gabe, eskubide urraketa, bortizkeria eta bazterkeria ereduak ikusten jarraitzen duten bitartean.

Bazen garaia, Elkarbizitzaren alde pentsamendu eta ideologia mota desberdinek lekua izan behar dutela aldarrikatzeko. Finean, guztiarentzat aukera bertsuak egotean, hizkuntzak eta kulturak errespetatzean eta herri bakoitzak aukeratzen dituen bideak, baita pedagogikoak, errespetatzean egongo baita berriro ere gakoa. Hori, gutxienez, ikasia beharko genukeen herriko historiatic!

kronika

ELAk eta LABek Eusko Jaurlaritzako negoziazio mahai orokorra utzi dute, Osakidetzan eta Hezkuntzan langileen lan baldintzen negoziazioei berriro ekin arte. Azken urteetan, langileen baldintzak negoziatu beharrean, negoziazio eskubideak urratzen dituela leporatu diote bi sindikatuek Jaurlaritzari, eta lan baldintzak dekretu bitartez "inposatzen" dituela. Sindikatuek, era berean, Osakidetzan eta Hezkuntzan itxitako mahai sektorialak irekitzeko eskatu diote Gasteizko gobernuari. Bestalde, CCOO eta UGT sindikatuek, negoziazio mahai utzi ez, baina Jaurlaritzak egindako azken proposamena baztertu dute.



Eskola euskalduntzera bidean, ez mutu, ez geldirik

Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena plataformak mobilizazioak egin ditu urtarrilean, eskolak euskaldundu behar duela aldarrikatzeko. Urtarrilaren 25ean manifestazio jendetsuak egin zituzten Iruñean eta Gasteizen eskolak euskalduntzen ez duela eta hizkuntza ereduen politikek porrot egin dutela salatzen.

Ekimenak kezka azaldu du, instituzioek eskubideak bermatzeko neurriak hartu beharrean, egungo egoera mantentzeko tentazioa izan dezaketela ikusten duelako. Hori guztia dela eta, aurrera begira lanean jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute. Azken asteotan ikastetxez-ikastetxe eta herriz-herriz bildu dituzten milaka postal Tontxu Campos, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari, Carlos Perez Nieves, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariari eta, Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoaren presidenteari bidaliko dizkiete otsailean bertan.

Egoera aldatzeko, neurri hauek

jasoko dituen proposamena beharrezkoa dela esan du Eskolak Euskaldundu Herri Ekimenak:

1.- Hizkuntza eredu bakarra eta euskalduna.

2.- Irakasle eta hezkuntzako langile guztiak euskaldunak izateko neurriak.

3.- Sistemaren ebaluaketa iraunkorra.

4.- Pedagogia eredu parte-hartzailerik. Ikasleak ikasketa prozesuaren subjektu izan behar du. Aldi berean, klaseko ikasle kopurua jaitsi beharra dago.

5.- Euskal Curriculuma. Euskara, euskal kultura eta nortasuna bultzatuko dituena.

6.- Aisialdia euskaraz. Eskolari lotutako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izateko neurriak.

7.- Baliabideak. Ikastetxeek legea bete dezaten baliabide ekonomiko, pedagogiko eta pertsonal egokiak eskaintzea.

8.- Proposamen nazionala. Eskolak euskararen lurralde osoan euskalduntzea eskubidea da, eta legeak hori bermatu behar du.

Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena azaldu duenez, euskalduntze osora heltzeko euskararen ofizialtasuna eta Hezkuntza Sistema Nazionala ezinbestekoak dira, baina bitartean, norabide horretan, haien esku dagoen guztia egiteko eta iruzurrak salatzen konpromisoa hartu dute.

Gizabanakoaren askatasuna talde-lanaren emaitza soilik izan liteke Zygmunt Bauman



Euskarazko haur eskolen alde, Iruñean

Hello izeneko hiru haur eskola ireki berri dituzte Iruñean, eta gaztelaniaz eta ingelesez aritzen dira horietan. Azkena Donibane auzoan ireki dute ikasturte honetan, 112 plaza eskainiz. Egun, oraindik, 82 plaza hutsik daude. Donibaneko Auzo Elkarteak, AEKk, EHEk, ANVk eta Haur Eskolak Euskaraz plataformak, plaza horiek euskaraz eskaintzea eskatu dute eta ingelesezko haur eskolak euskarazkoen ordeztatu dute.

Prensaurrekoa eta kontzentrazioa egin dituzte egoera salatze xedez. "Iruñeko Udalak 112 leku eskainizituen Donibaneko Hello San Juan eskolan. Baina matrikulatzeko epean, 15 haur eskolatzeko eskaera besterik ez zuten jaso. Horregatik, epea luzatu eta adin tarte handitu zuten. Hasieran 2005ean jaiotakoak onartzen zituzten eta gero 2006ko urtarrila eta ekaina artean jaiotakoak ere bai. Azkenean, 30 eskaera soilik jaso zituzten. Hau da, 82 leku hutsik gelditu ziren", azaldu dute eragileek.

Iruñeko 17 haur eskoletatik bi soilik dira euskaraz, Txantrean dauden Izarte-

gi eta Egunsenti. Gainontzekoak gaztelaniazkoak dira. "Iruñean eskaintzen dituzten lekuen % 11 bakarrik dira euskaraz. Gaztelania-inglesezko plazen eskaintza berriz, %24koa da eta gaztelaniazkoa % 65a da". Eskola horietatik 11, Iruñeko udalarenak dira, eta bost Nafar Foru Gobernuarenak. Plaza guztiak kontuan hartuz, euskara eta gaztelera elebidunean 172 plaza daude, ingelesezko gaztelera elebidunean, ostera, 358. Eskaera handitzen joan den arren, 1995. urtetik ez da euskarazko haur eskolarik ireki Iruñean, sindikatuen arabera.

Iruñean, D ereduak Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioen herena hartzen, du gutxi gorabehera, eta haur eskolen eta hurrengo zikloen artean dagoen desoreka salatu dute eragileek. Donibanekoaz gain, gaztelania-ingleseko eskaintza duten beste eskolak, Hello Errotxapea eta Hello Azpilagaiña dira eta enpresa pribatuek kudeatzen dituzte.

Egoeraren aurrean, urtarrilaren 18an, aipatutako eragileek kontzentrazioa deitu zuten *Jose Maria Huarten haur eskola euskaraz* lelopean, eta beste hainbat eragileren babesa jaso zuten, besteak beste, Dindaia, Iruñeko Udaleko haur eskoletako langile batzordea, Sortzen, EHBE, EHE, AEK, IA, EAE-ANV, eta ELA, LAB, eta EILAS sindikatuena.

Datozen asteetan, Haur Eskolak Euskaraz plataformak mozioa aurkeztuko du udalean, Jose Mari Huarten gelditzen diren lekuak euskarazko eredurara pasatzeko eskatuz.

Seaskako Integrazio Batzordeak jakinarazi duenez, ahalmen urriko 18 ikasle dabilta Seaskaren 12 ikastolatan. Seaskak aurre egiten dio erronkari, baina salatu dute, Frantziako hezkuntzak ez dituela dagozkion laguntzak eta baliabideak ematen. 18 haur horien eskolatzeari bermatzeko, 95.000 euro behar dira. Frantziako hezkuntzak ez ditu lau lanpostu diruz lagunduko eta 10 hezitzaileen soldatak Seaskak, bere sakeletik ordaindu beharko dituela azaldu du. Duela bederatzi urte ekin zioten ahalmen urriko haurren integrazioaren erronkei erantzuteari. Orduetik erronka handitu eta ondorioz, diru premia ere handitu da, baina Frantziako legeak aitortzen dituen eskubideak betetzen ez dituela salatu dute ikastolek. Gizartearen elkartasuna funtsezkoa izan da erronka horiei aurre egiterako orduan, eta ekimen ugari antolatu dira bide horretan lan egiten jarraitzeko.

GAIA

Ondoezik dauden ikasleak

*Eskolak etxean eta ospitalean
jasotzeko aukera*





Gaixotasunen bat duten edo aldi batez eskolara joaten uzten ez dien arazoren bat duten ikasleek ez dute zertan ikastetxeko martxa galdu. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, haien etxean, edota erietxean bertan, hezkuntza arreta jasotzeko aukera dute, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak zerbitzu bereziak eskaintzen baitutuzte. Horrek gainerako ikaskideen erritmoa ez galtzeko aukera ematen die ikasleei. Ezohikoa den egoera horretan normaltasun apur bat ematen die ondo ezik dauden bitartean eskolak jasotzeak eta etxean edo erietxean egoteak sortzen duen errutina hausteko modua da.

G

Errutina hautsiz eta ikasgelako erritmoa galdu gabe

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez da halako zerbitzurik. Hezkuntza arloa Frantziar gobernuaren eskuetan izanik, gobernuak ez du halako programarik aurreikusten. Hori bai, posible da, norberak aseguru pribaturen bat izatea eta kasu horietan, ikasleek eskolak jaso ditzakete, baina ez zerbitzu publikoaren barnean. Horrelakoetan, aseguruak jasotzen duenaren arabera, irakasleak etxera edo ospitalera joaten dira ikaslea denbora luzez gaixorik baldin badago.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, Etxez-etxeko, Ospitaleko Arretarako eta Arreta Terapeutikorako Lurralde Zentroak daude. Horien egitekoa, ikastetxera joaterik ez duten ikasleei arreta eskaintzea da. Sei funtzio nagusi dituzte:

- Hezkuntza prozesuaren garapena laguntzea.

- Ikastetxera joaterik ez duten ikasleen ikaskuntza eta sozializazioa ahalbidetzea.

- Ikasle horien hezkuntza inklusioa eta inklusio soziala erraztea.

- Behar duten ikasleentzat laguntza terapeutiko arloko programak bultzatzea.

- Irakasleak ikaskideekin eta ikastetxeko irakasleekin, zein etxeko laguntza eskainiko dion irakaslearekin, harreman ona izan dezan bultzatzea.

- Erietxeko langileekin koordinazioa izatea, ikaslea ospitaleratuta dagoen kasuetan.

Era berean, ikastetxearekin koordinazioa egiten du Lurralde Zentroak.

Hauk dira Lurralde Zentroek eskaintzen dituzten zerbitzu nagusiak:

- **Etxez-etxeko laguntza zerbitzua.** Irakaslea ikaslearen etxera joaten da eta curriculumajarratzeko helburua du.

- **Ospitaleko gelak.** Ospitaleratuta dauden ikasleek eskolak jasotzeko au-

kerak dute Txagorritxuko ospitalean, Santiagon, Gurutzetako eta Basurtuko ospitalean eta Donostia ospitalean. Erietxetan ikasgelak daude, eta beharrezkoa denean, irakasleak haurren gela joaten dira eskolak ematera. Norberaren beharretara egokitzen den zerbitzua da eta haurrak, nahi dutenean joaten dira ospitaleko eskolara.

- **Laguntza terapeutikoa.** Gaixotasun psikiatrikoak dituzten ikasleak edota terapia intentsiboak behar dituztenak ikastetxe berezietara joaten dira. Ikasleek eskolatze partekatua dute eta terapia jasotzen dute, baina era berean hezkuntza landuz.

Zerbitzu horietan guztietan koordinazioa egoten da ikaslearen jatorrizko ikastetxearen eta Lurralde Zentroen artean. Eta etxez-etxeko arreta zein ospitaleko arreta eskaintzen duen irakasleak koordinazio orduak ditu baita ere ikaslearen ikastetxearekin, curriculumari jarraipena emateko.

Etxez-etxeko laguntzan, Lehen Hezkuntzan, astero zazpi ordu eta erdi aurreikusten dituzte asko jota; DBHn berriz, hamar ordu astero. Eta hamar ordu horietan hiru eremu hartzen dira kontuan: eremu soziolinguistikoa, eremu zientifiko-teknologikoa eta ingeleza. Lehen Hezkuntzan, irakasle bakarra



Hainbat zerbitzu

joaten da ikaslearen etxera. Haur Hezkuntzako ikasleek ere, etxeko laguntza jaso dezakete, beharrezkoa denean, baina normalean 6 eta 16 urte bitartekoek jasotzen dute.

Laguntza terapeutikoa

Laguntza terapeutikorako zerbitzua 2007-2008 ikasturtean jarri da martxan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Orain arte Bizkaiko La Ola Hezkuntza Bereziko Ikastetxean zeuden ikasleak Ortuellako eraikin berrira joan dira. Ekipamendu horiek terapia baten beharra duten ikasleentzat dira, gaitz psikiatrikoak dituztenentzat. Bertan Osakidetzako eta Hezkuntza Saileko langileak ari dira lanean. Lasarten, Ortuellan eta Gasteizen izango dira horrelako zentroak; Ortuellakoa martxan da. Gasteizko eta Lasarteko eraikinak lanean daude eta 2008an zabalduko dituzte ateak. Zentro horiek aldi baterako dira; lehen egonaldia sei hilabetekoa izaten da eta egoerak hala eskatzen badu, luza daiteke, baina inoiz ez ikasturte osoa baino gehiago. Egonaldia amaituta, ikasleak ikastetxera bueltatzen dira. Zentro bakoitzak bere hezkuntza proiektua du eta hiru fase bereizten dira: lehena harrera litzateke. Ikasleek dituzten arazoak aztertzen dituzte eta jarraitu behar duten prozesua zein den zehazten dute. Bigarren pausoa, esku hartzea bera litzateke eta azkenik, hirugarren pausoa, ikastetxera bueltatzea litzateke. Ikastetxera bueltatzen direnean, jarraipena egiten diete ikasleei.

Ikastetxe horietara joaten diren ikasleak, etxera joaten dira lotara eta posible denean, eskolatze partekatua egiten da; goizean ikastetxe horietan eta arratsaldean haien eskolan aritzen dira. Terapia egiten dute eta ikasgaiak lantzen dituzte, beraz; helburua tera-



Ana Bariain, Nafarroako zerbitzuaren koordinatzailea.

peutikoa eta hezitzailea da eta beti dago koordinazioa ikasle bakoitzaren berezko ikastetxearekin.

Eskola erizain

Eskolan bertan arreta jasotzen duen ikaslerik ere bada. Carlos Ruizek esan digunez, eredu anglosaxoia jarraitzea ezinezkoa da, ez baita posible eskola guztietan erizain bat izatea. Baina eskolan bertan arreta behar duten ikasleak egoten direla ikusita, Osasun sailburuak eta Hezkuntza sailburuak akordioa sinatu zuten 2005. urtean, eskola orduetan osasun arreta berezia eskaintzeko, eta jarduteko protokoloa ezarri zuten. Horren arabera, haurrak arazoren bat duenean, gurasoek edo tutoreak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi behar diote eta, ondoren, zuzendaritzak, arazoaren berri ematen die ikastetxeko langileei. Irakasleek haien burua laguntza eskaintzeko moduan ikusten ez badute, zuzendaritzak ikastetxeari dagokion eskualdeko osasun zuzendariarengana jotzen du eta horrek biderraten du sendagilea eskolara. Eskolan, adibidez, haur batek diabetea duela antzematen bada, eta botikak eman behar bazaizkio, formazioa duten irakasleen artean boluntarioa eskatzen da lan hori egiteko.

Irakasleek eta ikastetxeko gainera-

ko langileek, nahi izanez gero, ikasleei laguntzeko ikastaroak jaso ditzakete. Joan den ikasturtean 300 irakaslek eta hezkuntza espezialistek jaso zuten trebakuntza.

Nafarroako zerbitzua

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ere, etxeko etxeko eta ospitaleko hezkuntza arretarako zerbitzua eskaintzen du duela hiru urte. Ana Bariain da programa horren koordinatzailea. Lau irakaslek osatzen dute lantaldea; Ana, etxeko etxeko laguntzaz arduratzen da eta beste hiru lankideek, Pedro Bellosok, Begoña Barbarinek eta Lurdes Sádabak, Iruñeko Virgen del Camino ospitalean egiten dute lan, bertan ospitalerata dauden haurrekin. Ospitaleko ikasgelan eskolak ematen dituzte, gaixoak dauden geletara joaten dira eta kanpoan dagoen psiquiatria unitateko gaixoei ere arreta eskaintzen diete. Irakasle guztiak pedagogia terapeutikoan trebatuak dira, baina horrez gain, haietako bat teknologia berrietan espezialista da, beste bat Haur Hezkuntzako irakaslea da eta hirugarrenak, euskaraz daki.

Eskaintzen duten zerbitzua Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroaren barnean dago, baina fisiko-ki Iruñeko Virgen del Camino Ospitale-



an daude. Anak ospitalean bertan egiten du lan, haurrengandik gertu egoteko aukera ematen diolako: “Abantaila da, medikuekin eta familiarekin zuzenean hitz egin dezakegu. Gainera, horrek etxez-etxekeko laguntzaren beharra izan dezaketen kasuak hautematea errazten du”, esan digu. Horregatik da garrantzitsua baita ere, etxez-etxeke eta ospitaleko laguntzaren arteko koordinazioa egotea.

Etxez-etxekeko laguntza

Nafarroan, etxez-etxekeko laguntza jasotzeko hainbat baldintza bete behar dira, ordea, eta horietako bat da ikasleak 21 lagunetan, jarraian, ikastetxera joaterik ez izatea. Gainera hiru eskaera egin behar dira: alde batetik, gurasoek egin behar dute eskaria (izan ere, ikasleek ordutegi zehatza bete behar dute etxean eta pertsona heldu bat izan behar dute ondoan eskolak jasotzen dituzten bitartean; gainera beharrezkoa da espazio egokia izatea). Bestetik, beharrezkoa da laguntza hori zenbat egunerako beharko duen zehazten duen medikuaren txostena izatea, eta azkenik, ikastetxeko zuzendaritzak egin behar du eskaria. Hiru eskariak jasotzean, laguntza eman dakioken edo ez aztertzen dute, baldintzen arabera hartzen dute erabakia, baina normalean denei ematen diete laguntza. Laguntza ematea erabakitzen badute, Ana ikastetxearekin harremanetan jartzen da, etxez-etxekeko laguntza zer den eta nola funtzionatzen duen azaltzeko.

Minbizia duten haurren kasuak hautematen direnean, eskolara denbora luzez faltako direla ikusten dute, eta ADANO elkartearekin, minbizia duten haurrei laguntzeko Nafarroako elkartearekin harreman zuzena egoten da. Elkartek horretako psikologoak ikastetxe-

ari, haurrei eta gurasoei gaixotasuna nolakoa den azaltzen die. Hezkuntza arloari dagokion esku hartzea ondoren izaten da.

Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan dauden ikasleei, astero bost orduko arreta eskaintzen zaie eta ikastetxearekin koordinazioa egiteko, bi ordu dituzte hilero. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, berriz, astero zortzi orduko arreta jasotzen dute etxean, eta koordinazio orduen kopurua berbera da. Etxez-etxekeko laguntzari dagokionez, garrantzitsua ikastetxearekin dagoen koordinazioa da, Anak esan digunez: “Normalean, bilera egiten da irakasle talde osoarekin eta tutorearen bidez bideratzen dugu ikasleak etxean egin behar duen lan guztia. Irakaslearen eta tutorearen arteko koordinazioa oso garrantzitsua da. Azterketak etxean egin ditzakete baita ere eta horretarako ebaluazio irizpideak finkatzen dira ikastetxeko irakasle bakoitzarekin.”

Etxez-etxekeko laguntzari ekitean, ikastetxearekin bi koordinazio saio egiten dituzte:

- Lehenengoan orientatzailea, tutorea, gurasoak, etxekeko irakaslea eta programaren ardura duen koordinatzailea egoten dira.

- Bigarren, programaren arduraduna ikastetxean ikasle horri eskolak ematen dizkioten irakasleekin biltzen da. DBHn eta ondorengo ikasturteetan, oinarrikoa da koordinazio hori, ikasleek irakasle gehiago izaten dituztelako. Garrantzitsua da horiei guztiei programaren funtzionamendua azaltzea.

Anak bi koordinazio horietan parte hartzen du, baina ondorengo guztietan egotea ezinezkoa da, Nafarroa osoko arduraduna delako. Dena den, zailta-

sunen bat baldin badago, ondorengo koordinazioetan ere esku hartzen du.

Bekak familientzat

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ez du irakasleen lan poltsarik etxez-etxekeko laguntzarako eta etxean arreta eskainiko duen irakaslea bilatzea, familiaren, ikastetxearen eta Anaren egitekoa da. “Caja Navarra vía Fundación izeneko fundazioak, *Zeuk aukeratu, zeuk erabaki* izeneko programa du. Bertan ‘etxez etxeke eta ospitaleko arreta’ programan parte hartzen dugu eta urtero ekarpen ekonomikoa egiten digute. Gobernuak hitzarmena du proiektu horrekin eta dirua beka moduan ematen dute. Familiari beka ematen diote, eta etxean lan egiten duen irakasleari familiak berak ordaintzen dio. Beka hori lan egindako orduen arabera da. Prezio bat ezarri dute, eta familiari beka ematen zaio irakasleari ordaintzeko modua izan dezan”, azaldu digu Anak.

Ikasleak ikastetxera itzultzen direnean, ikastetxeak berak, ebaluazioa egiten du beti. Tutoreak egiten du, familiak egiten du, eta baita etxean arreta eskaini dion irakasleak ere. Azken horrek ikaslearekin batera landu duenaren inguruko txostena prestatzen du. Anak, ikastetxera itzultzeko prozesua koordinatzen du eta Hezkuntza Departamentuari egoera zertan den jakinarazten dio. Haurra ikastetxera bueltatzen denean dagokion eskolatze mailan integratzea erraztu nahi dute.

Anak esan digunez, haurren erantzuna positiboa da, beti: “Normaltasun giroan egoteko gogoia dute, gogorra egiten zaie eskolara ez joatea eta lagunekin ezin egotea. Eskolak jasotzeak bizitza normalarekin lotura eskaintzen die eta oso positiboa da”.

Bideokonferentziaren abantailak

Etxarri-Aranazko Andra Mari Ikastola Bideokonferentzia bidez eskolak etxean

Teknologia berriek eskain ditzaketen abantailak baliatuta, Etxarri-Aranazko Andra Mari ikastolan, bideokonferentzia bidez eman izan dizkiote eskolak etxean gaixorik zegoen ikasle bati. Giltzurrun transplantea egin zioten eta denbora batez etxean egon behar izan zuen. Nafarroako Gobernari laguntza eskatu eta behar zizuten bitarteko guztiak eskura jarri zizkien, ikasle hark eskolak etxean jasotzeko modua izan zezan eta, horrela, ikastetxeko martxa gertuagotik jarraitzeko aukera izan zuen. Ikaskideek gustura hartu zuten esperientzia berria eta irakasleak ere pozik daude emaitzarekin.

Giltzurrun transplantea 6. mailan zegoenean egin zioten ikasleari, eta ikasturte hartan (eta hurrengoan) etxean egon behar izan zuen denboraldi batez. Gainera, gauzak ez ziren behar bezala atera, eta DBHko 4. mailan zegoenean ebakuntza egin behar izan zioten berriro ere. Ez kasu batean, ez bestean, ez zuen ikasturte osoa galdu, baina egun asko egin behar izan zituen etxean, ikasleak ezin baitzuen eskolara joan, etxean dialisiaren makinari konektatuta egoten zelako. Horren aurrean, zerbait egin beharra zegoela ikusi zuten Andra Mari ikastolako arduradunek. Beraz, Txarete Ganboa eta Itziar Aldaz orientatzaileak eta Estitxu Ruiz irakasle laguntzailea lanean hasi ziren.

Txaretek eta Estitxuk esan digute-



Estitxu Ruiz, Luis Karlos Preciado (teknologia berrien arduraduna) eta Txarete Ganboa.

nez, CREENAkoekin (Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa) harremanetan jarri ziren, eta bertan azaldu zieten eskolak bideokonferentzia bidez emateko aukera zutela. Ez zuten bi aldiz pentsatu, eta baliabideak eskuratuta, lanean hasi ziren. Hezkuntza Departamentuak berak eskaini zien materiala, bai eskolari eta baita etxeko-ei ere; ikastolari ordenagailu eraman-garria ere eman zioten.

Ikasgelan parte hartzeko aukera

Andra Mari ikastolan, Lehen Hezkuntzan ikasle guztiak elkarrekin izaten dira gelan, baina DBHtik aurrera, behar bereziak dituzten ikasle guztiak gela bakar batean elkartzen dituzte. Hasieran, beraz, ikasgelan bertan insta-

latu zuten kamera. Ikasgelan ematen zizuten eskolak eta ikasleak etxean jasotzen zuen guztia. Horrek gelan parte hartzeko aukera ematen zion, eta ikaskideek ere hura ikusten zuten. Ez zituen eguneko ordu guztiak ematen, saio batzuetan besterik ez zuen parte hartzen.

“Hasieran arrotza egin zitzaien gainerako ikasleei, baina gero dena primeran joan zen. Oso natural hartu zuten eta oso ongi atera zen”, dio Txaretek. “Bai-jarraitu du Estitxuk-ezer egin aurretik galdeketa egin genien ikasleei, ikasgelan kamera jartzea zer iruditzen zitzaien galdetzeko, eta oso ongi hartu zuten, ez zuten inolako arazorik izan”.

Dena den, beste mota bateko ara-



zoak izan zituzten: “Konexioa eten egiten zen maiz eta arazoak izan genituen. Ikasleak etxetik deitzen zuen moztu egin zela esateko, korrika joaten ginen teknologia berrien arduradunaren bila... Gu urduri geunden, gauza berria zen eta ikasle guztiak gelan utzi behar genituen bakarrik, eskola moztu egiten zen... Baina oso esperientzia polita izan da, eztabaidak ere egin ditugu harekin eta oso ongi ater dira. Gainera, berak dioena entzun behar denez, ikasgelan isilago egon beharra dago. Eta gainerako ikasleak ere, sentsibilizatuta daude”, dio Estitxuk. Etxeko lanak egiten zituen ala ez ere ikus zezaketen, kamerari erakusteko eskatzen baitzioten.

Txaretek dioenez, gaixorik dagoenak lotura izan dezake era horretan ikastetxearekin, eta hori oso garrantzitsua da hainbat hilabetetan etxean egon behar duen 11 urteko ikasle baten kasuan. Oso garrantzitsua da irakasleekin duen harremanari eusteko,

ikasleak ikusi eta haiekin hitz egiteko... Gero, ikasketetan ez du modu berean aurreratzen, ez da gelan egotea bezala, baina loturari eusten dio eta hori oso garrantzitsua da.

Adimen emozionaleko saio batzuk ere egin zituzten berarekin hasieran. Behar bereziak dituzten ikasleek gelan lagun gutxi zeuden, eta haien etxean baimena eskatuta, Estitxurekin autoz joan ziren denak Arbizura, gaixo zegoen ikaslearen etxean saioen bat ematera. Horrek ere laguntzen du ikastetxearekin lotura izaten, ikasleek taldekide gisa hartzen dute etxean dena... Telefonoz ere askotan deitzen zioten, bai etxean eta baita erietxean zegoenean ere. Baina bideo-konferentzia bidez bakarrik ez, etxeko laguntza ere jaso zuen ikasleak. Eskola batzuk etxean bertan jasotzen zituen (ikastolako irakasle bat joaten zen bere etxera), eta beste batzuk bideo-konferentzia bidez. Irakaslea ikastolako bertakoa izatea oso garrantzi-

tsua izan zen koordinazio horretarako.

Horrek guztiak asko erraztu zuen itzulera, eta osatu zenean oso animatuta itzuli zen ikastolara.

Etxeko laguntza hori ongi bideratu dela uste dute arduradunek. Hiru hilabetetik behin etxeko laguntza zerbitzuko arduradunetako bat joaten zen ikastolara, prozesuaren jarraipena egitera. Orientatzailearekin, zuzendariarekin eta etxean laguntza eskaintzen zion pertsonarekin biltzen zen, eta gertutik jarraitu dute dena.

“Oso garrantzitsua izan da ere ikastolaren eta gurasoen arteko lotura, bestela ezinezkoa izango zen zenbait gauza aurrera eramatea. Izan ere, haiekin adosten duzu zein ordutan joango den irakaslea, eta gauza asko nola egingo diren”, dio Estitxuk.

Dena oso ongi joan da, pertsona askoren lanari esker, baina ikasleak ere jarrera ona izan duela nabarmendu nahi izan dute, ahalegin handia egin duela gauzak ongi ateratzeko.

Ordenagailu mailegua

Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen zerbitzuaren barnean, pisu handia dute teknologia berriek eta ikasleek teknologia berri horiek eskuratu jartzeko, etxeko-etxeko laguntza programak ordenagailu mailegua eskaintzen du Ana Bariainek esan digunez: “Ikasleak etxean denbora asko pasa behar duen kasuetan, ordenagailuen mailegurako zerbitzua dugu. Familiari eta ikastetxeari ordenagailu bana utz dakieke. Era horretan, fami-

liak eta ikastetxeak lotura izan dezakete”. Hori bera egin zuten Etxarri-Aranatzen. Ikasleren batek ikasgelarekin konektatu behar badu, irakasleek zehazten dituzte orduak. “Kasu batzuetan, astero konexio bakarra egiten da, adibidez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek kasuan. Gela horietan zaila da webcama duen ordenagailua egun osoz piztuta edukitzea, baina astean behin konekta daiteke. Haurrek ba-

dakite konexioa noiz izango den eta badakite ikaskideari zer esango dioten, marrazkiak edota abestiak prestatzen dituzte... DBHn esperientzia politak izan ditugu, ikaslearen eta ikastolaren artean 12 orduko konexioak zehaztu zirelako eta horrek erraztu egin zuen ikastetxearen hezkuntza proiektuarekin jarraitzea”, esan digu Anak. Helburu nagusia, etxean dagoen ikaslearen eta ikaskideen arteko harremanari eustea da.

Ospitaleko gelak

Donostia ospitalea

Egunerokotasun dosia eskolatik kanpo

Donostia ospitalean ospitaleratuta dauden haurrek, hezkuntza arreta jasotzen dute. Arantxa Ugalde, Virginia Azpiroz eta Silvia Zarate irakasleak arduratzen dira lan horretaz. Gela bat dute ospitaleko laugarren solairuan eta sendagileek baimena emanaz gero, haurrek erietxeko eskolara joateko aukera dute. Bertaratzetik ez duten haurren kasuan, irakasleak joaten zaizkie gelaz gela behar duten arreta ematera. Ospitaleko eskolan lana egiteak du lehentasuna, baina jolastu ere, jolasten dute. Arantxak, Virginiak eta Silviak haien egunerokoa nolakoa den azaldu digute.

Zein da, zehazki, erietxean egiten duzuen lana?

Arantxa: Gaixorik dauden haurrei arreta pedagogikoa eskaintzea da gure helburua, gaixorik egon arren, ez daitezela atzean geratu. Haur bakoitzaren osasun egoerara egokitu behar dugu horretarako.

Virginia: Gainerako haurrekin harrimantetan jartzen, sozializazio prozesuan ere, laguntzen diegu. Arlo sozio-afektiboa lantzen da eskolan; harremanak, komunikazioa, sozializazioa...

Arantxa: Haien gelatik, ohetik, espazio horretatik ateratzeak ate asko irekitzen dizkie eta elkarrekintza hori oso aberasgarria izaten da, animikoki ere asko laguntzen dielako. Eskolak normaltasuna eskaintzen die ospitaleratuta dauden haurrei.

Virginia: Lehen egunetik azken egunera aldaketa izugarria da, ahaztu

egiten dute gaixorik daudela, erietxean daudela eta lan asko egiten dute, denek.

Helburu horiek lortzeko, nola egiten duzue lan?

Arantxa: Batzuetan guk geuk jartzen dizkiegu lanak eta beste batzuetan ikastetxetik ekartzen dituzte. Beste batzuek, txikiagoak direnek, agian, jolastu egiten dute.

Donostia ospitalean, haurrak hirugarren soilaruan daude eta eskola laugarrenean. Hori muga al da?

Arantxa: Bai. Eskolara etortzeko sendagilearen baimena behar dute eta gazurrarekin dauden haurrek, salbuespen gutxi batzuk kenduta, ezin dute eskolara igo.


Virginia: Eskolan baldin badaude, arazoren bat baldin badago, denbora pasatzen da erizainen bat igo arte.

Eta eskolara joateko aukerarik ez dutenek, ba al dute haien gelan arreta jasotzeko aukerarik?

Arantxa: Bai. Egunero gela guztietatik pasatzen gara. Berriei zerbitzuak nola funtzionatzen duen azaltzen diegu eta sendagilearen baimena baldin badute, etortzera animatzen ditugu.

Virginia: Eta ezin dutenekin solairu horretan bertan dagoen gelan, bazkalondoan, saioa egiten dugu. Kasu horretan, solairu berean gaudenez, ez da arazorik; erizainak berehala etor daitezke eta sendagileak ere bertan pasa dezake kontsulta. Aurtengo berrikuntza da hori. Eta ohetik altxatzerik ez dutenei, haien gelan bertan eskaintzen diegu arreta.

Arantxa: Minbizia duten haurrek adibidez, ezin dute eskolara igo espazio berezietan daudelako. Gelan bakarrik daude eta hortik etxera joateko baino ez dira ateratzen, beraz, gu joaten gara haiengana. Aspanovas-ekin, min-



Virginia Azpiroz, Silvia Zarate eta Arantxa Ugalde.



bizia duten haurren elkarrearekin, egiten dugun lana ere aipatu beharko genuke. Astero etortzen dira eta elkarlanean aritzen gara, kasuak koordinatzen.

Eskolak ordutegi zehatza al du?

Arantxa: Bai, baina ikasle bakoitza une batean dator. Era berean, ordutegi malgua da, agian bat-batean frogatzen egitera joan behar dutelako edo medikuak kontsulta pasatzen duelako. Ordutegi bat izateak, ordena jartzen du ikasleentz eta gurasoentz bultzatzen. Ospitalak eskaintzen duen baldintza zailen artean egunerokotasun dosi txiki bat eskaintzen da.

3 urtetik hasi eta 18 urte bitarteko haur eta gazteak hartzen dituzue. Erraza al da adin tarte zabal horren baitan moldatzea?

Arantxa: Bai. Eskola txiki baten modukoa da, DBHko ikasleak gehituta. Pedagogikoki, irakasle moduan, hainbat tresna izan behar ditugu eskura: ordenagailuan aritzeko materialak, fitxak, liburuak, jostailuak... Guk ere materialak prestatzen ditugu, zikloka. Dena den, denbora tarte luzerako etortzen direnean, gurasoek ekartzen dituzte etxeko lanak edo ikastetxearekin jartzen gara harremanetan.

Virginia: Elkarrekin egiteko moduko ekintzak ere antola daitezke. Txikienek animaliei buruzko lan bat egin dezakete bi argazki itsatsita eta izena jarrita eta DBHko batek idazlan bat egin dezake: animalia horren ezaugarriak zein diren, zer jaten duen... Antolaketa behar da, baina horrelakoak egin daitezke.

Antolaketa beharrezkoa dela diozue, baina baita zuen prestakuntza ere, ezta?

Virginia: Bai. Baina ikasleek ere elkar laguntzen dute eta zaharrenek txikienak zaintzen dituzte.

Arantxa: Koordinazioak garrantzi handia du. Alde batetik hemengo taldearekin egiten duguna, sendagileekin, erizainekin... Bestetik, ikastetxeekin eta familiekin dugun harremana legoke eta etxetik etxeko zerbitzuarekin ere harremana dugu. Izan ere, zenbait ikasleri etxean eskaintzen diete arreta, baina agian hona datoz eta lanari jarraipena emateko etxeko laguntza ematen dion irakaslearekin hitz egitea beharrezkoa da. Beste ospitaleetako irakasleekin ere, harremana dugu.

Virginia: Lurralde zentrotako zuzendaria ospitaleko koordinatzailearekin (ni kasu honetan) eta etxetik etxeko zerbitzuaren arduradunarekin biltzen da jarraipena egiteko; astero edo hama-bostean behin biltzen gara.

Euskaraz eta gaztelaniaz ikasten duten ikasleak hartzen dituzue...

Arantxa: Eta beste hizkuntza batzuetan aritzen direnak ere bai. Horrelakoetan, lehen unean behintzat, ahozkoa ez den komunikazioa erabili behar dugu.

Virginia: Iaz Senegalgo mutiko bat izan genuen eta beste haurrekin ongi komunikatzen zen. Guk zerbait ulertzen genuen, adi geundelako baina haiek komunikatzen ziren, ez dakigu nola, baina jolasean... moldatzen ziren.

Kanpotik ikusita zuen lana gogorra dela irudituko zaio bati baino gehiagori. Hala al da?

Arantxa: Jende askok esaten digu hori, baina lan gogorak leku askotan daude. Egia da gaixotasun batzuk gogorak direla eta baliabide dezente behar direla haurrari eta familiari lagun-

tzeko. Baina gu irakasle lana egiten saiatzen gara, egunerokoari begiratuz, eta "ai gizajoa, nola dagoen!" modukorik pentsatu gabe. Egoera horiekin bizi izan behar dugu; memento zailak bizi ditugu, ikastetxe batean edo gela batean memento zailak bizitzen diren moduan, baina lan eskertua ere bada. Egoten, entzuten eta ixiltasuna bizitzen ikasi behar dugu.

Virginia: Oso lan polita da, asko ikasten da.

Arantxa: Polita da egoera zailen aurre nola egiten dieten ikusleak.

Araba eta Bizkaian ez bezala, Gipuzkoan, Donostia ospitalean, Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitate Espezifikoan dago, zerbitzua bereiztua dago, fisikoki, eskolatik kanpo dago, psikiatrikoan bertan. Silvia Zarate da bertako arduraduna.

Gehinez zortzi haur izaten ditu Silviak, bi lagunentzako lau gela baitaude psikiatrikoan. "10 urtetik 18 urtera bitarteko ikasleak daude. Guk ere eskola dugu eta ikasleak hara doaz. Normalean, ez dute arazo fisikorik eta sendagileak kontrarik esan ezear, denak eskolara joaten dira. Prozesua bera da. Gurasoekin gutxiago egoten gara ez direlako egun osoz eta egunero etortzen, ordutegi mugatua baitute", azaldu digu Silviak. Ikastetxeekin harreman estua izaten dute, ikasle gehienak Bigarren Hezkuntzan daude eta askotan hitz egiten dute informazioa trukatzeko. Gainera, gehienetan egonaldiak luzeagoak izaten dira, batzuk, agian, bizpahiru hilabetez egoten dira eta jarraipen zorrotzagoa behar dute.

david hopkins

ELKARRIZKETA

Londresko Unibertsitateko irakaslea

// Hezkuntzak ez du irakaskuntzara soilik mugatu behar; eskolak ekarpena egin behar dio gizarteari //



// Gure ikasleek herritar oso izateko zein gaitasun behar dituzten ulertu behar dugu, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko estrategiak eta gaitasunak garatzeko prestatu behar ditugu. Beharrezkoa da aldeak ezabatzea eta ikasle batzuen eta besteen artean dagoen distantzia murriztea, justizia sozialera, zuzentasun sozialera iristeko. Hezkuntzak demokrazian eta justizia sozialean oinarritu behar du.



Hezkuntzaren kalitateari buruz hitz egin dugu David Hopkins-ekin, eta Hezkuntza Sistema Nazionalan kalitatea nola berma daitekeen azaldu digu. Kalitatea lortzeko, ikasleek herritar oso izateko behar dituzten gaitasunak aintzat hartu behar ditugula dio, eta gazteak XXI. mendeko erronkei eta estrategiei aurre egiteko prestatu behar ditugula. Hopkinsek dioenez, ikasle batzuen eta besteen artean dauden aldeak murriztu behar dira justizia sozialera iristeko.

Galesen jaioa, Londresko HSBC banketxeko zuzendaritzako kide da Hopkins, Londresko unibertsitateko irakaslea, hezkuntzan hainbat lan egindakoa, eta 27 liburu baino gehiago idatzi ditu. Hezkuntza erreformen gaineko esperientzia handia du, eta Erresuma Batuko Hezkuntza Sailaren aholkulari lanetan aritu zen Tony Blair-en gobernuan.

Hezkuntza erreformak aurrera egin dezan, eskolari protagonismo handiagoa eman behar zaiola esan digu Hopkinsek, eta aldaketak behetik gora egin behar direla, goitik behera egin beharrean. Ingalaterrako esperientziaren berri eman digu.

Zeri buruz ari gara hezkuntzaren kalitatea aipatzen dugunean?

Kalitate kontzeptura iristeko, bikaintasuna eta zuzentasuna uztartu behar dira. Hezkuntza sistemaren baitan dauden aldeak nola murriztu daitezkeen ikusi behar da. Gure kalitatea nahiko altua izango da, ikasleek haien gaitasunak garatzeko aukerarik badute.

Ni sistema ingelesetik nator eta gure hezkuntza sistemen artean, gure sistemaren eta euskal sistemaren artean, egiturari dagokionez, aldeak daude, baina uste dut bizi garen munduan, mundu globalean, aldeak baino gehiago, elkarguneak daudela. Horiek balia ditzakegu hezkuntza sistemetan aurrera egiteko, oinarritzko estrategiek zein izan behar duten ikusteko. Ni sistema ingelesari buruz hitz egingo dut, baina hemen aplikatzeko adibide gisa har daiteke, guk bizitakoa beste testuinguru batzuetara lekualda daitekeelako.

Zuek ez zarete soilik euskal komunitatearen parte, gero eta globalizatua dagoen mundu bateko kide ere bazarete, eta horregatik uste dut erronka nagusia gure kulturarekiko eta kultura globalarekiko dugun konpromisoa errespetatzea dela. Ikusi behar dugu nola eraiki behar den kultura berri hori bertako kulturaren gainean, kultura zabalagoa sortzeko. Hezitzaile gisa, egiteko garrantzitsua dugu gai horretan; XXI. mendeari eta etorkizunari begira dugun lanari aurre egiteko ikuspegi egokia izan daiteke.

Kalitatea lortzeko zer lan egin behar da ikasleekin?

Gazteak "ezagutzaren gizarte"ko kide izan daitezten prestatu nahi ditugu, eta giza ezagutzari buruzko hausnarketa egiten dugunean, pentsatu behar dugu belaunaldi batetik bestera ezagutzaren transmisioa dagoela. Gure ikasleek herritar oso izateko zein gaitasun behar dituzten jakin behar dugu, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko estrategia eta gaitasunak gara ditzaten prestatu behar ditugu.

Beharrezkoa da aldeak ezabatzea eta ikasle batzuen eta besteen artean

dagoen distantzia murriztea, justizia sozialera, zuzentasun sozialera iristeko. Hezkuntzak demokrazian eta justizia sozialean oinarritu behar du. Aldeak murriztu behar dira eta baliabide gehiago eskaini behar zaizkie norbanakoei, ahalegin handiagoa egin behar da gehiago behar dutenekin. Gizartearen baitan oreka lortu behar dugu, eta horretarako ikuspegi demokratiko batetik abiatu behar dugu.

Nazioartean, ba al da hau guztia abiarazi duen herrialderen baten adibiderik?

PISA emaitzetan onena Finlandia da, zuzentasunean oinarritutako gizarte eraiki dute, eta ikasleek helburuak betetzea lortu dutelako, haien gaitasunak gauzatzea lortu dute.

Ni, gauregun, mundu osoan ari naiz lanean. 2006an kongresu bat antolatu genuen Pekinen, eta 14 herrialdetako 100 bat eskolako zuzendariak bildu ziren, G100 deitu genion. Hezkuntza esparru anitzetatik zetozen guztiak, lantegi antzeko bat izan zen, eta maila handiko ordezkariak izan genituen. Hezkuntzaren etorkizuneko auziak eztabaidatu genituen, batez ere XXI. mendeko gizarteari begira, eta bi ondorio nagusi atera genituen: alde batetik, gurasoekin, ikasleekin, irakasleekin... egiten diren hezkuntza-eztabaida guztietan helburu morala zein den kontuan hartu behar dela eta, bestetik, ikusi genuen eskola zuzendarien helburuak, kasu askotan, bat zetoze.

Eskola zuzendariak esaten zuten hezkuntza-eztabaida guztietan, ikasleekin, gurasoekin, kideekin, politikariek egiten diren eztabaida guztietan, helburu moralak funtsezkoa izan behar duela eskolaren baitan. Eta, hortik aurrera, aipatu zen helburu moral horrek gure ikasleen alde lan egiteko motorra izan behar duela, hau da, ikasleentzat baliagarriak izan behar dugu, eta erakutsi behar diegu haiekin batera ikasteko asmoa dugula.

Beste gauza bat ere aipatu nahiko nuke: hezkuntzak ez du irakaskuntzara soilik mugatu behar; eskolak ekarpena



egin behar dio gizarteari. Hezkuntza sistemaren helburuak eskolatik haratago doaz. Konpromiso hori gizarte justu baten sorreran oinarrituko da; hezitzaileak garen bitartean, kontuan izan behar dugu zerbait eman behar diogula gizarte osoari.

Nola egin daiteke hori guztia?

Hezkuntzaren helburua zein den ikusi behar da eta herritarrengan oinarritu behar da. Irakasleek haien lanbidea garatzen ari diren unean eta kontu- hartze hori onartzen denean duten konpromisoa zehaztu behar da. Pertsonen bizitza aukerak parekatzeko, ikasleen aukerak parekatzeko eta estandar altuagoetara bultzatzeko estrategiak behar dira. Eskolek dirulaguntza handiagoak lortu behar dituzte, eta kulturak hezkuntzaren baitan garrantzia duela ikusi behar da. Bost alderdi horiek oso garrantzitsuak dira; gure erreformaren oinarriak izan ziren.

Beraz, ni hortik abiatzen naiz; de-

mokrazia sozialetik eta justizia sozialetik, alegia.

Hezkuntza sistemaren erreformari ganoraz helduz gero, demokrazia eta justizia sozialarekin konpromisoa hartuz gero, eskolan aldaketak modu azkarrean gertatuko liriateke? Zein liriateke ondorioak?

Bai. 1997an Ingalaterran egin nahi izan genuenarekin lotura du horrek. Gobernu berria maiatzaren 2an iritsi zen boterera, eta Tony Blair Downing Street-en sartzea oso garrantzitsua izan zen, Erresuma Batuan 16 urtean eskuinteko gobernuaren ondoren, aldaketa ekarri zuelako. Blairrek, agintera iritsi zenean, hiru lehentasun zituela esan zuen: hezkuntza, hezkuntza eta hezkuntza. Benetako gizarte demokratiko bat garatzeko motorra hori izan zitekeela ikusi zuen. Adibide praktikoa bat emango dut: 90eko hamarkadaren erdi aldera neurketa batzuk egin ziren eskolek nola funtzionatzen zuten ikuste-

“ Erronka handia zen, baina babesa ere bai. Eskola bateko arduradunak, adibidez, eskolako langileei estandar hobeak lortzen lagundu nahi badie, horrek laguntza eskaintzea eskatuko dio, bestela ez du bateratasunik lortuko. Printzipio nagusia hori litzateke, eta gero politika osagarri batzuk abiaraz daitezke.

”

ko, eta ondorioztatu zen II. Mundu Gerratik 90eko hamarkada arte irakurketaren estandarrak ez zirela asko aldatu. Gobernuaren lehen helburua hori aldatzea izan zen; zerbait egin nahi zen irakurketa eta idazketa estandarrak, alfabetizazio estandarrak, aldatzeko. Argi zegoen ikasleek, hezkuntza prozesuan aurrera egiteko, eremu horietan gaitasun nahikoa izan behar zutela.

Erresuma Batuan 150 barruti daude, baina horiek ez dute indar handirik, botere zentralak du zeresan nagusia. Garaiko mapak egoera kaskarra adierazten zuen, barruti askotan maila baxuaz; alfabetizazio kanpainajarrigenuen abian eta mapa erabat aldatu zen 2002. urterako. Barruti gehienetan, 11 urteko ikasleen hiru laurdenek ingelesko laugarren maila lortu zuten. E-mailtzetan aldaketa handia gertatu zen, eta horri esker mila ikasleren etorkizuneko aukerak hobetu egin ziren. Guztia kontrol zentral horri esker lortu zen.

Nazioarteko neurketetan, 2001. urtean, Ingalaterra hirugarren tokian zegoen irakurketa arloan bederatzita eta hamar urteko ikasleen kasuan. Horrek frogatzen du gauzak aldatzeko ahalegin serioa egiten badugu, aldaketa lor daitekeela.

Zerk bultzatu zuen nagusiki aldaketa hori?

Erronka handia jarri genuen, baina babesa ere handia izan zen. Blair-engo-bernuaren kasuan oreka lortu nahi izan zen erronken, estandarren eta laguntzaren artean, eta uste dut hori funtsezkoa izan zela. Eskola bateko arduradunak, adibidez, eskolako langileei estandar hobeak lortzen lagundu nahi badie, laguntza ere eskaini beharko die, bestela ez du elkargunerik lortuko. Hori printzipio nagusia izango litzateke, eta gero politika osagarri batzuk abiaraz daitezke. Gure ustez, artean ez zen halakorik gertatzen, eta horregatik sartu genuen kontu-hartzearen auzia. Hori beste batzuen esku utzitako erantzukizunarekin lotu genuen; hau da, eskolak gero eta erantzukizun handiagoa izango zuen, botere handiagoa izango zuen,



az-
ken
batean. Kali-

tate estandar handinahiak ezarri genituen; estandarrak hobetu nahi genituen, eta jardunbide egokiekin eta kalitateko garapen profesionalarekin lortu genuen.

Nola egin zenuten hori?

Ikastetxe bakoitzari eskatu genion Lehen Hezkuntzan, egunero, ordubete erabil zezala alfabetizaziorako, hau da, irakurtzen eta idazten irakasteko. Horrez gain, ahalik eta material onenak garatu behar genituela erabaki genuen, ikasleek material onak izateko. Irakasleek ere erabil zezaketen material hura, eta ez zuten denborarik eman behar eskolak prestatzen. Gainera, hiru eguneko prestakuntza berezia eskaini genien irakasleei, material hura nola erabili azaltzeko, eta beste irakasle batzuei prestakuntza berezia eskaini genien, ikasgelan bertan irakasleekin elkarlanean aritzeko. Beraz, kalitatean oinarritu ginen, prestakuntzaren kalitatean alde batetik, eta materialen kalitatean bestetik. Helburuak ezarri genituen, eta eskola bakoitzari laguntza eta babesa eskaini genizkion. Zenbat eta arazo handiagoak izan, orduan eta laguntza gehiago eskaintzen genien eskolei. Eta horrek guztiak emaitzak hobetzen lagundu zuen.

Zer erabaki zehatz hartu zenituzten horretarako?

Estandarrak handinahiak ziren benetan, altuak. 7, 11, 14 eta 16 urtekoei probak egin genizkien. Nire iritziz, hori egitea komeni da, horrela ikasleek beren helburuak lortu dituzten edo ez ikusten delako, eta baita zenbateraino den egokia esku hartzea ikasle horiek

aurrera egin dezaten. Estandar horien ebaluazioa ezaugarri garrantzitsua da erreforma planteamendu mota horretan.

Helburuei dagokienez, hainbat helburu ezarri genituen. Datu base nazionala sortzen saiatu ginen, eta bertan ikasle guztien aurrerabideei buruzko datuak bildu genituen. Tresna indartsua izan zen guretzat, ez bakarrik kontu hartzeari dagokionez, baita irakas-kuntza estiloan oinarri praktikoagoa eta esanguratsuagoa izateko ere.

Horiek dira, beraz, erabili zenituzten estrategiak; alderdi horiek ekarri zuten hezkuntza erreformaren arrakasta Ingalaterran. Baina nola lagundu zenioten ikastetxe bakoitzari?

Gure hezkuntza sistemaren baitan, ikasleen errendimenduari zegokionez, batez bestekora iristen ez ziren eskolak identifikatu genituen, eta egoera aldatzeko laguntza eskaini genien. Ez genituen ikastetxe horiek zigortu nahi, laguntza eskaini nahi genien, ikasleek aukera bakarra ez izateko, beste tresna batzuk ere izateko. Azken urteetan murriztu egin da batez bestekora iristen ez diren eskolen kopurua, baina egoera korapilatsua eta zaila da. Azken bizpahiru urtean konturatu gara eskola porrota saihesteko, errendimendu altuko eskolak (jardunbide egokia, ebaluazio egokia eta garapen profesional egokia dutenak) batez bestekora iristen ez direnekin elkartu behar ditugula, elkarri babesa emateko. Horrek formula egokia dirudi. Errendimendu altua duten eskoletako ezaugarri positiboak hartzen ditugu eta arrakastarik ez duten eskoletara eramaten saiatzen gara; badirudi emaitza egokiak lortzen direla bi eskola mota horiek harremanetan jartzen direnean. Eta errendimendu altua duten eskolek ere haien lana hobetzen dute lankidetzari esker, beste eskola batzuetako irakasleekin lan egitean, lehendik zituzten praktika egokiak garatzen dituztelako. Hezkuntza arloan lider nazionalak zein diren identifikatzen saiatzen ari gara, eta arrakastarik



lortzen ez dutenei babes programak eskaini nahi dizkiegu.

Eskola-ikuspegi sozialki justu eta demokratiko batek ondorio positiboak izan ditzake epe batean. Garrantzitsuen, konponbideak aurkitzeko eta alde horiek gainditzeko borondate politiko serioa eta irmoa izatea da.

Dena den, bidean arazoren bat topatu genuen. Nahiz eta prozesuak azkar egin zuen aurrera, 2003ko amaieran, emaitza onek goia jo zuten eta aurrerabidea geratu egin zen. Gu baikor geunden eta kolpea handia izan zen, baina, era berean, bagenekien, politika zentralak aplikatzen bagenituen, hori gerta zitekeela.

Ikuspegia aldatu beharra ikusi zenuten aurrera egiteko?

Zuzentarau nazional goitik behera-ko batetik beste batera pasa gara, non eskolak liderrak diren. Bialdeen arteko konbinazioa beharrezkoa da. 1997an, hasi ginenean, ez genekien muga horretara iritsiko ginela, eta hortik aurrera estrategia aldatu beharko genuela oreka aurkitzeko, arau nazionalak murrizteko eta eskolei autonomia gehiago emateko. Une horretatik aurrera, eskolaren gain egon behar du erantzukizunak. Beraz, hezkuntza erreformaren bilakaerak norabide horretara jo behar du, protagonismo handiagoa eman behar zaio eskolari. Eta horrela lortuko dugu eskola bakoitza eskola handi bat izatea.

Baina arazo bat dugu: zer egin behar dugun agintzen digun sistema bertikal horretara ohituta baldin bagaude,

dinamika batean sartzen gara eta erraz aritzen gara. Ikasgelara sartzen gara, esaten digutena egiten dugu goitik behera, eta egoera eroso da. Baina kontrol sistema bat gure esku jartzen denean eta ebaluazio estrategiak zehaztu behar ditugunean, gaitasun horietan behar adinako prestakuntzarik jaso ez badugu, korapiloak sor daitezke. Araututako horretatik profesional izatera pasatzeko, hezkuntza sistemaren barruan eraiki eta sortu egin behar dugu. Beraz, hezkuntza sistemaren barruan buruzagitza izatea funtsezkoa da, horrek eramango gaituelako zuzentarau nazional horietatik autonomiara. Orduan egingo dugu praktika berritzaile.

Hezkuntza sistema guztietan sortzen den zalantza da ea kontrol zentralari eutsi behar zaion edo boterearen zati bat eskoletara transferitu behar den. Zer urrats egin behar ditugu estatuak kontrola izatetik eskolak boterearen zati hori izatera pasatzeko? Nola lor daiteke oreka hori?

Aurrera egiten saiatu behar dugu, estandarrak hobetu behar ditugu, baina jakin behar dugu nola sortu gaitasunak sistemaren barruan. Nik esango nuke lidergoa funtsezkoa izan arren, badirela lau motor nagusi eta horietan oinarritu behar dugula geure lana. Lau motorrak hauek dira:

Lehenik, ikaskuntza pertsonalizatua garatu behar da. Hau da, ikaslearen oinarritu behar dugu. Nik irakas-

// Ikasleen errendimenduari zegokionez batez bestekora iristen ez ziren eskolak identifikatu genituen eta laguntza eskaini genien egoera aldatzeko. Ez genituen ikastetxe horiek zigortu nahi, babesa, laguntza eskaini nahi genien, eta azken urteetan murriztu egin da batez bestekora iristen ez diren eskolen kopurua, baina egoera korapilatsua eta zaila da



leei galdera hauek egingo nizkieke: ikasle bakoitzarentzat identifikatu al da ibilbide jakin bat haren gaitasunak gara ditzan? Trebetasunak ematen al dizkiezue ikasleei gaitasun horiek garatzeko? Ikaskuntzarako gaitasunik eraikitzen ari al zarete? Bestetik, ikusi beharko litzateke nola uztartu, zuen kasuan, euskal curriculuma curriculum globalarekin. Erantzuna ez da erraza, baina planteamendu hori funtsezkoa da, gure gizarteari eta kulturari buruzko gogoetak egitea posible izan dadin eta ikasleak mundu globalizatuaren erronkei aurre egiteko presta daitezten. Ikaskuntza-gaitasunak azpimarratzea beharrezkoa da, beraz.

Bigarren motorra hau da: irakasle lan egiteko modua aldatuta, ikaskuntza mota jakin bat egiteko modurik ba ote den. Ikaskuntzaren ikuspegi berri horretatik abiatuta prestatu behar dira ikasleak, baina estrategia zabalak dituzten irakasleak behar dira, eta curriculuma diseinatzen dutenen arteko lankidetzak beharrezkoa da. Irakasleek gaitasunak eta trebetasunak behar dituzte eskola berri horretarantz joateko, eta garapen profesionalak garrantzi handia du.

Hirugarren motorrak galdera hauei erantzun beharko lieke: nola egiten diogu aurre kontu hartze horri, nola baloratzen dugu ebaluazioa? Nola orekatu kontu-hartzeak eta ebaluazioak ematen dituzten emaitzak ikasleen ga-

rapena bultzatzeko?

Laugarren motorrak sarean egindako lanarekin eta lankidetzarekin du zerikusia. Hau da, nola egiten dugu lan beste eskola batzuekin? Nola lortzen ditugu praktika eta ideia egokiak gure hezkuntza sisteman aurrera egiteko? Sekula ez dugu hezkuntza sistema aldatuko eskolen arteko lankidetzarik ez bada, eta hutsuneak eta indarguneak identifikatzen ez badira.

Lau motor horiek konbinatzeko, kontuan izan behar dugu zein testuinguruan ari garen lanean, hezkuntza sistema bakoitzean lidergoa moldatu beharko delako.

Lidergoari buruz esan nahi nuke eremu global batean behatzen hasi naitzela, eta mundu zabalean badirudi hezkuntza sistemetako liderrak hainbat ibilbidetan dabiltzala. Alde batetik, ikastetxeetako zuzendariak gero eta erantzukizun handiagoa hartzen ari dira, gazteek aurrera egitea bermatu nahi dutelako, eta beste aldaketa bat ere antzeman dut: eskoletako ardura-dunak edo zuzendariak eginkizun gehiago hartzen ari dira, esparru zabalagoan parte hartzen ari dira, ikastetxetik kanpo begiratzen hasi dira, beste eremu batzuetan parte hartzen ari dira. Hori, etorkizunari begira, oso garrantzitsua da.

Kontu-hartzeari buruz hitz egin duzu. Nola aplikatu daiteke hori



gure testuinguruan? Gure sisteman?

Kontu-hartzea sartu berria da zuen sisteman eta irakasleek kezka dute gai horren inguruan. Guk 90eko hamarkadaren erdi aldean sartu genuenean, hezitzaileak ere kezkatu egin ziren. Nik uste dut alde handia dagoela kanpotik eta barnetik egiten diren kontu-hartzeen artean. Kontu-hartzeak hezigarria izan beharko luke, eta ez metagarria. Kanpotik kontu-hartze metagarria egin behar da, baina erantzukizun hezigarria bultzatuz.

Ingalaterran, nola ebaluatzen duzue hezkuntza sistema?

Hezkuntza sistema ebaluatzeko lau modu ditugu. Alde batetik, 7, 11, 14 eta 16 urtekoei egiten dizkiegun azterketak ditugu, hor ikusten dugu ikasle bakoitzak zer-nolako emaitzak lortzen dituen. Nazio mailan ere, beste azterketa batzuk egiten dira ikasleak estandarretara iristen ote diren ikusteko.

Bestalde, hezkuntza komunitateko kide guztiek beren helburuak dituzte, administrazioak, irakasleek eta ikasleek.

Taula bidezko sailkapen bat ere badugu, eta horien bidez ikastetxe bakoitzeko emaitzak argitaratzen ditugu. Denek ikus ditzakete emaitzak, publikoak dira, baina guk ez ditugu mailakatzeko, alfabetikoki argitaratzen ditugu.

Ebaluazioa egiteko laugarren modua kanpoko ikuskaritza da. Horren bidez, txosten batzuk prestatzen dira, eskola bakoitzean zer gertatzen den ikusteko.

Batzuetan behaketa mota hori ez da oso justua izaten, barrukoak diren elementuak sartzea garrantzitsuagoa delako. Azterketen kasuan, esaterako, zergatik ez dugu diagnostiko bat egiten? Zergatik ez ditugu emaitza horiek erabiltzen ikasle bakoitzaren eta gela bakoitzaren ibilbideak berriro diseinatzeke? Zergatik ez erabili feedback hori ikasleen mesedetan?

Taula horietan emaitzen berri ematen dugunean, datu sozioekonomiko ugari agertzen da. Toki aberatsenetako ikastetxeak goiko aldean daude, eskola


privilegiatuenak lehen mailan daude, eta gune pobreenetako eskolak zereendaren amaieran agertzen dira. Emaitza onak lortzen dituen eskolak besteari zer ekarpen egin diezaiokeen ikusi beharko genuke, funtzionatzen duen horretan oinarritu beharko genuke. Ikuskaritzei dagokienez, berriz, zergatik ez du ikastetxeak berak ikuskatzen, eta ondoren kanpoko behaketa jasotzen? Ebaluazioa ez dugu soilik kanpora begira egin behar, eta ikastetxeetako zuzendariak arlo horretan lan egiten dutenean hasten da kalitatea hobetzen.

Aldaketak behetik gorakoa izan behar du, eta ez goitik beherakoa. Gobernu ez zegoen oso pozik nirekin, auziak behetik gorantz planteatu nahi nituela ikusten zutelako, baina sinestaz nien horrek emaitza positiboa izango zuela, eta erreforma aplikatu genuen lehen urtetik hobekuntzak bista-koak izan ziren. Eskolatik zer lortu behar dugun esaten diguna gobernu ez izatea lortu beharko genuke.

Nola planteatu daiteke hezkuntzaren erreforma Euskal Herrian?

Eskola sistema ordenagailu batekin pareka dezakegu, hiru osagai ditu: hardware-a, software-a eta sistema eragilea. Azken horrek elkartzen ditu hardwarea eta softwarea. Hardwarea azpiegitura litzateke, softwarea irakas-kuntza-ikaskuntza prozesua, eta sistema eragilea erreforma eredu. Hezkuntza sistema orok zer azpiegitura behar duen, zer ondasun behar duen aipatzen da, eta interesgarria da ikustea gobernu gehienak azpiegituran, hardwarean, oinarritzen direla. Curriculumari buruz ere hitz egiten da, baina ahaztu egiten zaie tartean badela sistema eragile bat, eta horrek "input" a itzuli egin behar duela "output" bihurtzeko. Hezkuntza erreformei buruz hitz egiten dugunean funtsezkoa da hori.

Ikuspegi profesionalizatuagoa sortu nahi badugu, sistema eragile horretan non kokatzen garen ikusi behar da. Erreforma bat egitekotan dabilenak ezinbesteko du aurrera egiteko estrategia nola garatuko den ikustea.



David Hopkinsek hezkuntzaren erreforma planteatu zuenean, Tony Blair-en bulegoan eman zion lehen ministroari bere planaren berri. "Oso handia zen haren bulegoa. Erdian mahai luze bat zuen, eta hango ginen Tony Blair eta haren gobernuakideak mahaiaren alde batean, eta ni, bakarrik, beste aldean. Egoera bitxia izan zen, errespetua ematen duten horietakoa", dio Hopkinsek. Azkenean, baina, erreforma onartu eta gobernuak espero zituen emaitzak lortu zituzten.

ASTRONOMIA ERA DIBERTIGARRIAN IKASIZ Aranzadi Ikastolako ikasleak zientzilari

Bergarako Aranzadi ikastolako hainbat ikasle Experimentaldira hurbildu ziren euren irakasleekin batera. Astronomia ikasgaiaren ikasitakoak praktikan jarri, eta Miramongo Kutxaguneak antolatzen duen urteroko zientziaren azokan jarri zituzten egindako esperimenduak denok ikus-teko moduan. Julen Eguren eta Aritz Arrillaga DBHko ikasleek azaldu zizkiguten haien esperimenduen nondik norakoak.



Balde batean bitubo ikusi genituen, “batetik haizea botila batera doa eta hortik haizea igotzen da goiko botilara. Haize horrekin lekua hartu, indarra hartu eta iturri bat sortzen da. Horregatik deitzen zaio Heronen iturria”, azaldu ziguten ikasleek.

Esperimentu horretarako materiala, bi botila, bi tapoi, bi zulodun konketa eta hiru edo lau metroko gomazko hodi fina dira. “Botila batek, goikoak hain zuzen, beteta egon behar du eta bestea, erdia baino gutxiago”, esan zuten.

Beste esperimentu bat azaltzeari ekin zioten Julenek eta Aritzek. Panel bat zen. Ezkerreko begia itxi, eta eskuintekoarekin paneletik 20 zentimetrotara begiratu behar zen. Arretatsu eta pa-

nelera poliki-poliki begiratu, aurretik ikusten genuen zerbait jadanik ez genuen ikusten.

“Franklinen kanpaia” ere erakutsi ziguten gazteek: “Telebista pantaila bat dago eta pizten denean, uztaiak piztuko da”. Telebistak, aluminiozko papera zuten. Kableak zeuden eta boligrafo bat erdian. Postuaren atzean konstelazioen diapositibak aurki genitzakeen, astronomia klaseetan erabiltzen dituztenak.

“Ikasgelan, lehenengo teoria lantzen dugu eta orain hasi gara esperimenduak egiten”, esan ziguten Bergarako gaztetxoek. “Teoriarekin baino gehiago ikasten dugu gauzak benetan praktikan jartzen, eta gainera hobeto pasatzen dugu”, gaineratu zuten.



MANU ARREGI

Aranzadi ikastolako fisika, matematika eta astronomiako irakaslea

Astronomia ikasgaia hautazkoa da eta DBHko 3. mailan eskaintzen da. Normalean 15 ikasle inguru izaten dira parte hartzaileak, aurtan, ostera, 27 ikasle ari dira horretan. Manu Arregi da ikasgaiaren irakaslea.

Nolako esperientziak egiten dituzte ikasleek astronomia ikasgaietan? Astean bi ordu hartzen ditu Astro-

nomia hautazkoak gure ikastolan. Denbora gehiena astronomia ikasten pasatzen badugu ere, Kutxaguneak Experimentaldia zientziaren azoka antolatzen duenetik etenalditxo bat egiten dugu, eta zientzia tailer bihurtzen dira klaseak. Hasieran froga izan zena, ohitura bihurtu da, ikasleak oso gustura ibiltzen direlako esperimenduak egiten, eta horrela zientzia era dibertigarrian ikasten dutelako.

Astronomia gaiaren barruan, Natur ikasgaien unibertsoari buruz ikasten dutenasakonago ikusteaz gain, garrantzi handia ematen diogu zeruko konstelazioak ezagutzeari. Lehenengo gelan ikasi eta gero irteerak egiten ditugu gauetz zuzenean ikusteko. Benetan da polita ikasleek, hori guztia hor goian dagoela ikusten dutenean. Astronomiarekin zuzenean lotutako esperientziak ere egiten ditugu: planisferio bat egiten dute, planetario txiki bat, kamara iluna, ur kohete bat plastikozko botila batekin...

Zein eduki ikasteko asmoz egiten dituzue esperimenduak?

Zientzia osotasunean era dibertigarrian ikasteko. Adibide batzuk ipiniz, ur kohetearekin akzio erreakzio printzipioa lantzen da, kamara ilunarekin argia zuzen hedatzen dela eta optika orokorra, presio atmosferikoa Experimen-

taldia 2007ra eraman genuen ur iturriarekin, elektroien hedapena Franklinen kanpaiekin...

Planisferioa eta planetario txikia irteera egin aurretik konstelazioak ezagutzeko egiten ditugu.

Miramongo Experimentaldira hurbiltzea motibazioa al da ikasleentzat?

Bai. Irteera berezia izaten da ikasleentzat. Alde batetik, bergararrak garen ez, joan-etorrian ibili beharrean, gau bat Ondarretako aterpetxean egiten dugu. Eta ikasleentzat abentura bat da hori. Horrez gain, Experimentaldiak ikasleari irakasle papera hartzeko aukera ematen die eta, polita da hori ere, haien adineko leku desberdinetako ikasleekin kontaktuan jartzeko aukera dutelako.

“Hasieran froga izan zena, ohitura bihurtu da, ikasleak oso gustura ibiltzen direlako esperimenduak egiten eta horrela zientzia era dibertigarrian ikasten dutelako”



Argitxo Egutegiak

Ikasgelan, atsedendaldian eta etxean, euskaraz

Hezkuntza arloan euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekimen egiten dira geurean, eta horietako bat da Ikastolen Elkarrekin duela urte batzuk abian jarri zuena: Argitxo Egutegiak. Euskaraz Bizi egitasmoaren baitan abiatu zuten eta helburua, eskolan zein eskolatik kanpo, haurrek euskaraz hitz egitea eta jolastea da. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleengan eragiteko tresna egokia da, izan ere, eskolaren eta familiararen arteko elkarlana bideratzen baitu, gurasoei ere egitasmoan parte hartzeko aukera eskainiz. Hik Hasi aldizkariaren 109. alean, 'Goza nazazu gehiago' atalean, *Hizkuntzaren transmisioan familia da gako* izeneko artikuluan aipatzen zen moduan, ezinbestekotzat jotzen baitu Euskaraz Bizi proiektuak, haurraren hizkuntz ohituretan eragiteko, eskola esparruan egiten denaren nolabaiteko luzapena hortik kanpo ere jasotzea, kasu horretan, etxean bertan. Hori ahalbidetzeko prozedura zehatza bideratzen da: egutegian agertzen diren jolasak horiei buruzko gurasoentzako ikastaroekin uztartzen dira eta emaitza hobea lortzen da horrela. Gurasoen eta irakasleen parte-hartzearekin eramaten dute aurrera Argitxo Egutegiak izeneko proiektua.

Ikasturte hasieran hasten da guztia. Egutegia banatzen dute ikastoletan, eta, horrekin batera, gurasoei ikastaro batzuetan parte hartzeko eskaintza egiten diete, garrantzitsua delako familian euskarak lekua izatea. Argitxo Egutegia, Euskaraz Bizi egitasmoak eskaintzen duen "Joko eta jolasak euskaraz" izeneko ikastaroarekin uztartuz gero, emaitza aberatsagoa izan daiteke. Helburua, seme-alabak ikastetxetik kanpo daudenean, gurasoekin euskaraz aritzeko baliabideak izatea da, eta, horretarako, zenbait jolas erakusten dizkiete gurasoei.

Baina gurasoentzat bakarrik ez, irakasleentzat ere tresna baliagarria izan nahi du egutegiak. Egutegiak era askotako jolasak eskaintzen ditu eta jolas horiek gelan ez baizik, gelatik kanpo lantzea komeni da. Irakasleek egutegiak hilabete horretarako proposatzen duen jolasa atsedendaldietan dinamizatzen badute, jolas hori euskaraz sistematizatzeko aukera gehiago dago. Lehenengo egunetan irakasleak lan gidatua egin beharko luke, jolasaldiak trebakuntza saio bihurtuz. Ondoren, haurrek jolasa ikasi dutenean, dinami-



zazioan eragin beharko du irakasleak. Hilabetea amaitzen denean, berriz, behaketa lana egin behar du, haur bakoitzak ikasitakoa bere kasa egiten duten edo ez ikusteko.

Beraz, Argitxo Egutegiak izeneko egitasmoak ikastolako eremu ez-curricularrean eta familiarrean eragiteko helburua du.



Amurrioko Aresketa ikastola

Euskal Herriko ikastetxe askotan animatzen dira gurasoak Argitxo Egutegiak izeneko egitasmoak eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartzera, eta Amurrioko Aresketa ikastolak eskaintza hori egiteko erabakia hartu du aurrean, euskara bultzatzeko dinamika mota horiek egokiak

iruditzen zaizkielako.

Hasieran uste baino guraso gehiagok eman dute izena ikastaroan. Lau egunetan izan dituzte saioak, zortzi ordu guztira. Guraso euskaldunek eta erdaldunek hartu dute parte, eta euskaraz eta gaztelaniaz egin dituzte ikastaroak. Bizkaiko Urtxintxa Eskolak eskaintzen ditu saioak; txosten bat osatzen dute beraiek proposatutako jolasekin eta Argitxo Egutegian planteatzen dituztenekin, eta tartekatzen joaten dira.

Gurasoek jolasak ikasten dituzte, eta ikusle izatetik dinamikan parte hartzea pasatzen dira.

Hasteko, "ezagutza jolasak" egiten dituzte, eta askok elkar ezagutzen ez duten arren, oso giro ona izaten dute haien artean. Ondoren, egutegian agertzen diren jolasak ikasten dituzte. Euskararen alde lotsak eta beldurrak alde batera uzteko prest izaten dira gurasoak, eta Argitxo lagun hartuta, egitasmoak seme-alabekin euskaraz aritzeko eskaintzen dien aukerari heltzen diote.



urrioko Aresketa ikastolako gurasoak Argitxo Egutegia lan-ko ikastaroan parte hartzen.

GURASOENTZAKO AHOLKUAK

Era guztietako gurasoek har dezakete parte egitasmoan: euskaldunek eta euskaldunak ez direnek. Horietako bakoitzari aholku zehatzak ematen dizkio Ikastolen Elkarteak, euskararen erabile-rari dagokionez.

Guraso euskaldunei

Zer egin?

- Etxean euskaraz egin.
- Euskara eskaini eta euskara eskatu. Haurra beste norbaitek zaindu behar badu, euskaraz egingo diola ziurtatu. Eskolaz kanpoko ekintzak ere euskaraz izan daitezela.

Zer ez egin?

- Euskaraz haurra aurrean dagoenean soilik egin.
- Euskara ikastolaren lana balitz bezala hartu. Etxean hasi behar dute ikasten eta erabiltzen.

Nola hobetu?

- Bikotekideek haien artean euskaraz hitz eginez.
- Familiarteko harremanak euskaraz izanez.
- Haurrarekin ahozko harremanaz gain, bestelakoak ere euskaraz izanez (etxeko lanak egiten lagunduz...)

Euskaldunak ez diren gurasoei

Zer egin?

- Eskaini. Haurra zaintzeko laguntza behar izanez gero, pertsona horrek euskaraz jakin dezala.
- Eskatu. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezela. Etxean zenbat eta euskara gutxiago izan, kanpoan gehiago beharko du.

Zer ez egin?

- Haurraren ikasketa prozesua gure gauza ez balitz bezala jokatu.
- Ardura eskolaren bizkar utzi.

Nola hobetu?

- Motibatuz. Garrantzitsua da haurrak ikustea euskararen ikas-kuntzak gurasoen babesa duela.
- Ikasiz. Ez da erraza, baina ezta ezinezkoa ere.

Bietako batek euskaraz dakienean

Zer egin?

- Beharrezkoa da euskaraz dakien bikotekideak haurrarekin euskaraz hitz egitea.

Kulturarteko hezkuntza

Berdintasuna eta aniztasuna oinarri



Xavier Besalú Costa

DIDAKTIKA ETA CURRICULUMENKO IRAKASLEA
GIRONAKO UNIBERTSITATEAN

Kulturarteko hezkuntzak eragin-korragoa eta zuzenagoa, zientifikoagoa eta funtzionalagoa den hezkuntza bat nahi duela dio Xavier Besalú irakasleak artikulu honetan. Kulturarteko hezkuntza bi oinarriren gainean egin behar-ko litzatekeela planteatzen du: alde batetik, berdintasunean eta berdintasuna lortze aldera eginga dako hezkuntza izan beharko luke, eta bestetik, aniztasunean eta aniztasuna errespetatuz egindakoa. Gure ikasgeletan atzerriko ikasleak izateak kalitate handiagoko hezkuntza egiteko aukerari atek zabaldu dizkiola uste du.

Nik uste dut hiru indar puntu dau dela kulturartekotasun hezkuntza deitzen dugun horretan; batzuek indarra ikastetxeetan sortzen den kulturartekotasun jartzen dute, beste batzuek arlo pedagogikoan jartzen dute eta beste batzuek arlo etikoan, balioetan... Uste dut denak bateragarriak direla, baina, ideia da, hastengaren tokitik hastengarela, horri kulturarteko hezkuntza dei diezaioket. Bihar bertan irakasleok geure ikastetxeetan gauzak hobetu ditzakegu eta horri kulturarteko hezkuntza dei diezaioket.

Nire galdera hau da: zein punturaino hartzen dituzte kontuan irakasleek eta administratzaileek ebaluazioek eta ikerketek uzten dituzten datuak? Edo erretorika hutsa da guztia, nahi dutena egiten jarraitzeko argumentuak behar dituztelako?

Hiru izen aipatuko ditut. Marcel Crahay ikerlari belgikarra nazioarteko azterketa garrantzitsuenetatik (PISA barne) datuak ateratzen saiatzen da, eta, gauzak hobetzeko, datu horiek nola erabili behar ditugun esaten digu. Haren ondorioa hau da: ez da egia eskolak, eraginkorrago izateko, injustuagoa izan behar duela. PISA ikerketetatik kontrakoa ondoriozta daiteke: eskolak justuagoa izateko, eraginkorrago izan behar du. Crahayk dio Europan bi hezkuntza sistemari buruz hitz egin daitekeela: batzuk, emaitzei dagokienez, ikasleen arteko aldeak zuzentzen eraginkorragoak eta justuagoak dira eta beste batzuk, berriz, injustuagoak eta ez horren eraginkorrak. Eraginkorragoak eta justuagoak diren estatuek zenbait ezaugarri dituzte:

1.- Alde batetik, zonifikazioaren alde egiten dute, familiek eskola aukeratzeko duten askatasunaren aldean; hau Frantziako eredua da. Horren aldean, gurasoek ikastetxea erabakitzeko askatasuna izatea legoke, eta hori pantea da.

2.- Bestetik, promozio automatikoren aldeko apustua egiten dute. Ez dute ikasturtea errepikatzearen alde egiten, ez baita hori jatorrizko aldeak zuzentzeko irtenbidea. Kontrakoa; ikasleek laguntza indibidualak izatearen alde egiten dute, baina estimuluak handiagoak izan daitezkeen taldearen baitan.

3.- Bestalde, beharrezkoak diren laguntza eta baliabideekin, heziketa premia bereziak dituzten ikasleen integrazioaren alde egiten dute, eta ez dute eskola edo gela berezien alde egiten.

4.- Laugarren ezaugarria, hezkuntza sistema horiek ikasleen heterogeneotasunaren alde egiten dutela izango litzateke, bai kanpoan eta baita ikastetxe barnean ere.

Crahayk dio justiziaz hitz egiteko, zertazari garen zehaztu behar dela. Justiziaren hiru dimentsiori buruz hitz egin dezakegu: eskolan sartzeko berdintasuna, eskolatze baldintzen berdintasuna eta emaitzen berdintasuna. Eskolan sartzeko berdintasuna ohikoa da. Aukera berdintasuna, berriz, oso garrantzitsua da; jatorrizko zailtasunak edo ezaugarriak (lurraldeari, sexuari, arrazari... dagozkionak) oztopo izango ez direla bermatzea da. Mendebaldeko hezkuntza sistemetan lortutako bermea dela esango genuke, nahiz eta Crahayk dioen xehetasunak ere badi-

tuela. Batzuentzat eskolan sartzeko bermea, sartzekoa baino ez da, eta horrek esan nahi du, barnean zaudenean, zure meritu eta ahalmenen arabera egingo duzula aurrera. Baina oraindik ez dugu aukera berdintasuna bermatuko duen sistema justurik. Ikasle guztientzat kalitate baldintza berberak behar ditugu, irakasleen kalitate bera eta ratio bera behar dugu zentro guztietan, instalazio onak behar ditugu ikastetxe mota guztietan... Baldintza berberak behar ditugu justiziaz eta benetako aukera berdintasunaz hitz egin ahal izateko. Azkenik, emaitzen berdintasuna ere behar dugu. Hezkuntzan ez da justiziarik egongo, dio Crahayk, ez da aukera berdintasun errealik egongo, denak jantziak izatea lortzen ez dugun bitartean; oinarrikoa dena denek jakin behar dute, etorkizunean behar bezala aritzeko. Ikasle guztiek lor dezakete ezagutza maila jakin bat, denei aukera berberak ematen badizkiegu. Denak dira gai, denek egin dezakete aurrera, baina beharrezko baliabideak eta denbora behar dira. Hori da oinarria.

Askotarikotasuna normaldu, normala askotarikotu

Beste ikertzaile batek, Lisa Taylor-ek, aniztasuna normalizatzea eta normala dibertsifikatzea proposatzen du. Esan nahi duena zera da: egin dezagun berdintasun politiken aldeko apustua, egin dezagun lan ikasgelan dagoen alde hori normalizat har dadin. Eta ikus dezagun orain arte normalizat hartu duguna mundu globalizatuan aldatu egin behar dela, zabaldu egin behar dela, bestela ez baitugu gertatzen denez erulertuko. Aniztasuna normalizatzeke, iritsi berri diren ikasleei babesa eman behar zaie. Atzeritarrek badira, are gehiago, agian hizkuntzak ere ezagutzen ez dituztelako. Beren gaitasunak garatzen lagundu behar zaie, baina ez bakarrik gaitasun linguistikoak, baita

akademikoak, kulturalak edo sozialak ere. Helburua ikastetxearen eta bere inguruaren bizitzan parte hartzea da. Iritsi berri diren ikasle atzeritarrek badute gaitasun linguistikorik, badakite hizkuntza bat edo gehiago. Beste hizkuntza bat ikasi behar dute, baina hitz egiten eta ideiak eraikitzen badakite. Ez dira analfabetoak eta gizartean bizi izan ez direnak. Irakasleek lan egiteko modua egokitu beharko dute, hizkuntza berri hori ikasten ari diren ikasleak dardelako. Beraz, ardura ikastetxe osoarena da, ez hizkuntza irakasleena edo harrera irakasleena soilik.

Etaz er esan nahi du alde horiek normaltzek? Munduan jada errealitatea dena, eskolan ere errealitate bihurtzea. Oso gauza errazetan isla daiteke hori: ikasgela eta korridoreetan ikusten den materialean, gure elkarriketako kideen izenak behar den bezala ahoskatzean...

Eta azkenik, Vicent Carbonell ere hona ekarri nahiko nuke. Hark dio, Taylorren antzera, berdintasunerako eta aniztasunerako hezkuntza jarri behar dugula martxan.

Beste bi gauza aipatu nahi nituzke eraginkortasunari buruz. *Eraginkortasun* hitza ez zait gustatu izan, teknokraten esku egon den zerbaite iruditzen zaidalako, eskola enpresa dela pentsatzen duten horien eskuetan egon da. Baina duela urte batzuk, Makarenkori irakurri ondoren, hau guztia berraztertu nuen. Makarenkok zioen, bere ustez ez zuela ezer txarrik eskola lantegitza hartzeak. Orokorrean, materialak ongi ezagutu behar dira, estandar batzuk daude, baina beti ateratzen dira ikasle onak edo txarrak, lantegietan lan onak edo material onak (edo txarrak) ateratzen diren moduan, eta hor ikusten da irakasle edo hezitzailearen lana, zailtasunak sortzen zaizkionean ikusten da irakasleak duen ahalmena. Makarenkok ez zuen ezer txarrik ikusten paralelismo horretan. Irakasleei esaten zien ez zuelak epaile lanak egiteko, baizik eta ikasleek zituzten hutsune horiek zuzentzeko. Beraz, haren ondorioa hori zen: eraginkortasuna progresistok

Jar ditzagun gure indarrak ikaslearen ahaleginetan, kanpoko frogen bidez ebaluatuko den horretan, eta hortik aurrerakoak gutxi inporta duenez, gutxi landuko dugu. Taldeka ditzagun ikasleak haien ahaleginaren eta ahalmenaren arabera, eta horrela emaitza hobek bermatuko ditugu. Hau da hortik dabilen eraginkortasunaren ideia. Mendebaldean gertatzen den eskola berrikuntza, bikaintasunaren diskurtsoarekin bat dator.

jaso behar dugun zerbaite da, ez dugu burokraten eta teknokraten esku utzi behar, eraginkortasuna justizia delako.

60ko hamarkadan administrazioek hartu zuten eraginkortasunaren aldeko jarrera. Eskolaren eraginkortasunaren gaia atera zen, eta planteamendua hau izan zen: badira besteak baino hobek diren eskolak, ikus dezagun nolakoak diren eta nola lan egiten duten. Eskola onenek ezaugarri komun batzuk dituztela pentsatzen zuten, eta hain onak ziren eskola horiek eskola eraginkor bihurtu behar ziren. Baina, begiratu gero, horren atzean beste gauza batzuk topatuko ditugu: adibidez, heziketa publikoaren ikuspegi ia-ia patologiko bat edo, krisiaren aurrean, halako parranda moral bat, azkenetan dagoen gaixotasun bat dugula esan nahi duena. Hezkuntza sistema publikoa gaixo larri baten gisara hartu zuten, eta terapia gogorak aplikatu behar zituztela uste zuten, oker bat sendatu eta beste hamar sortuko zituztenak. Orduan, kanpo ebaluazioa edota emaitzen araberrako ordainketa eta antzeko gaiak jarri ziren martxan eta gai horiek, zenbait lekutan, eraginkortasunaren izenean, heziketa-

Ikasle guztiak hezteaz ari gara, trebeagoak eta jantziagoak egiteko, gaur egungo gizartean bizitzeko eta mundua ulertzeko prestatzeaz ari gara, eta horrek esan nahi du klabeak eman behar zaizkiela munduan gertatzen dena ulertzeko. Kulturartekotasunaz hitz egitean, soilik hizkuntzari buruz eta etorkinei buruz ari garela pentsatzen badugu, bide okerretik goaz.

ren funtzio sozialaren kontra ari dira.

Ikasle onenen bila

Merkatu gehiago eta kompetentzia gehiago bultzatzen den neurrian, eskolen emaitzak ezagutzen diren neurrian, irakasleek emaitzen arabera aukeratzten duten neurrian... eskoletara bidaltzen den mezua hau da: eskolek emaitzak hobetu behar dituzue, saihestu itzazue ikasle txarrak eta egin itzazue zuen ikasle onenak biltzeko politikak. Hori justizia eta eraginkortasunaren ideietatik oso urruti dago. Eraginkortasunaren ideia horrek desberdintasunak mespretxatzen ditu, eta curriculumaren fundamentalismoaren aldeko apustua egiten du, esanez, utz ditzagun alde batera pedagogia eta transbertsalitatea, eta goazen teorikora: matematika gehiago, hizkuntza gehiago eta utz dezagun bestea alde batera, ez du eta ezertarako balio. Jar ditzagun gure indarrak ikaslearen ahaleginean, kanpoko frogen bidez ebaluatuko den horretan, eta hortik aurrerakoak gutxi inportatu duenez, gutxi landuko dugu. Taldeka ditzagun ikasleak beraien ahaleginean eta ahalmenaren arabera, eta, horrela, emaitza hobeak bermatuko ditugu. Hori da hortik dabilen eraginkortasunaren ideia.

Ikastetxea aukeratzeko askatasuna ez dator bat aldeak zuzentzearekin eta elkarrekin bizitzen ikastearekin, horrek eskola sedimentazioa eta sedimentazio soziala sortzen baititu.

Gainera, kontrolak bultzatzen dira, garrantzitsuena emaitza onak lortzea eta emaitza horiek guztiok (ez irakasleok bakarrik) ezagutzea delako. Emaitzak hezkuntza sistema arautzeko erabili beharko dira orduan, zentralizazioa bultzatu beharko da eta autonomia gehiago eman, baina horrek arriskua du, autonomia erkidegoetako gobernuek eskuak garbi ditzaketelako.

Eraginkortasuna eta justizia

Hori ez da guk bultzatzen dugun eraginkortasunaren ideia, guk eraginkortasuna eta justizia batzea bultzatzen dugu. Ikastetxeetan eraginkorra izateak neurriak betetzea esan nahi du; gizarte eta eskola garen neurrian, sinatzen dugun kontratuaz arduratzea. Zer dio legeak? Legeak dio oinarritzko heziketa derrigorrezkoa eta doakoa dela. Derrigorrezkoa bada, horrek esan nahi du denek eskolatuta egon behar dutela. Baina denak ez daude eskolan 16 urte arte; ez dira asko falta, baina falta dira. Gironan, 20.000-25.000 biztanleko herri batean, abstentzionismo kopuru kezkagarriak ikusi genituen; handiagoak Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino. Tasa altua zen, % 20ren eta % 50 en artekoa (hilabete batzuetarako kanpora joan eta itzultzen ez ziren familiak zeuden tartean). Hori elementu garrantzitsua da eskolarentzat. Estatubatuarek gauza txar asko dituzte, baina onak ere bai, eta horrekin lotuta doa horietako bat: AEBn seme-alabekin egoteko lehen baldintza, hori eskolatuta egotea da.

Beraz, mundu guztia ez dago eskolatuta eta hezkuntza ez da doakoa. Hitz egin dezagun ikasliburuei buruz, materialari buruz... Legez kanpoko den beste gauzetako bat hau da: oinarritzko heziketak denentzako eta kalitatekoa izan behar du. Baina ikastetxea aukeratzeko askatasun horren arabera, eskola onak eta txarrak daude; beraz,

kalitate bera eskaintzen ez duten eskolak egongo dira, curriculum bera eskaintzen ez dutenak, ikasteko aukera berberak eskaintzen ez dituztenak... Legeak ezartzen dituen gauza asko ez dira betetzen. Heziketa eraginkorra agindu horiek beteko litzukeena litzateke.

Zer esango genuke gaixoak baztertzten dituen erietxe bati buruz? Zer egingo genuke erietxeen ranking bat egingo bagenu? Esango bagenu, honi % 10 hiltzen zaio, honi % 3... Hori da eskolei, merkatuan sartzen direnean, ezartzen zaien logika. Ikastetxe horietako ikasleak diagnostikoa egiten dute, baina eskola ez dago horretarako, ez du jostun lanik egin beharrik, eta ez da epaitegia; denak garatzeko eta ikasteko espazioa da. DBHko laugarren mailara iristea ez da luxua, gutxienekoa da. Ikuspegi horretatik kontratua ez betetzea litzateke eskola porrota. Eskola eraginkorra egiteak kontratu hori betetzea esan nahi du; maila pertsonalean, maila kolektiboan eta herrialde gisa.

Kulturarteko hezkuntzaren garrantzia

Kulturarteko hezkuntza gisa ulertzen dugunaren mugak eta parametroak aipatuko ditut. Ez gara etorkinak hezteaz hitz egiten ari, ikasle guztiak hezteaz ari gara, haiek trebeagoak eta jantziagoak egiteko, gaur egungo gizartean bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko. Mundua ulertzeko prestatzeaz ari gara, eta horrek esan nahi du klabeak eman behar zaizkiela munduan gertatzen dena ulertzeko. Kulturartekotasunaz hitz egitean, hizkuntzari buruz eta etorkinei buruz soilik ari garela pentsatzen badugu, bide okerretik goaz.

Kulturarteko hezkuntzak hainbat printzipio izango litzuzke:

- Ikasle guztien autokontzeptu pertsonala, kulturala eta akademikoa hobetzea.

- Eskolan aukera berdintasuna bultzatzea, hau da, ikasle guztiek arrakasta lortzeko bidean lan egitea.

- Gehiago eta hobeto ikasteko, eza gutza hobetzeko eta besteekiko harre-

manak eta bizikidetzak hobetzeko balioko duten estrategia didaktikoak mar-txan jartzea.

- Errealitate sozialarekin bat datozen jarrerak eta balioak era sistematiko eta planifikatuan lantzea.

- Curriculumak egiten duen aukeraketa kulturala berrikustea, unibert-salagoa eta adierazgarriagoa egiteko, funtzionalagoa eta zientifikoagoa.

- Diskriminazio era guztien aurka borroka egitea, baita arrazistak direnen kontra ere, eta ez bakarrik jokabide, jar-rera eta aurreiritzien gainean, baita bere forma kognitibo, ideologiko eta in-stituzionalen kontra ere.

- Nortasunari eta desberdintasunari errespetua, pertsonen berdintasunarekin eta duintasunarekin adiskidetzeari; pertsonen askatasuna eta eskolaren kohesioa eta gizartearen kohesioa adiskidetzeari.

Irakasleok gure ezagutza kulturalaren kontzientzia hartu behar dugu. Gu gara hezkuntza baliabide garrantzitsuena, eta kultura transmisore garen heinean, gure kultura berraztertu behar dugu, bestela gu hobeak garelako transmititzen dugu, eta besteek, onak izan nahi badute, gu bezalakoak izan behar dutela.

Denak berdin tratatzen baditugu,

Ebaluazioa gure lanaren oso une garrantzitsua dela buruan baldin badugu, gure ikasle bakoitza sistematikoki behatzera konprometitzen gaituela, epai ahalik eta justuenak eman behar ditugula eta ondorengo elkarrizketarako oinarriak jarri behar ditugula baldin badakigu, horrek guztiak eraginkortasuna eta justizia hobetzea ekarriko du.

ikasle horiek izandako esperientziei ateak zabaltzen badizkiegu, hor egongo da kultur aniztasuna. Kultur aniztasuna ez dugu irakasleok ekarri behar, ikasleek ekartzen dute, baldin eta aukerarik ematen badiegu. Diskriminazio era guztien kontra borrokatu behar dugu, eta ez bakarrik diskriminazioa itsusia delako, baizik eta legeak berak esaten duelako eta kontratupean gaudelako. Askatasuna eta berdintasuna, aniztasuna eta nortasuna adiskidetzen jakin behar dugu.

Curriculumak landuz

Eta nola kulturartekotu ditzakegu curriculumaren arlo guztiak?

1.-Kulturarteko hezkuntza, etika nabarmentzeko elementua dela ikustea nahitaezkoa iruditzen zait, batez ere bizikidetzak planek epe ertainera izaten duten porrota ikusita. Etikoa dena ikas daiteke, baina zaila da irakastea. Horretan segitzen dugu, eta bakearen usoak moztea adibidez, ez da eraginkorra portaerak eta pentsaerak aldatzeko. Hor porrot sakon baten esperientzia dugu. Nire ustez, itxuraz, asmo oneko ekimen asko ditugu, baina horietako gutxiak lortzen dute portaerak aldatzea. Heziketa etikoak hiru osagai ditu, eta horietako bat harreman pertsonalena da. Nik, irakasle lanean, nire ikasleak ongi tratatzen badituz eta haiekin, gurasoekin eta gainerako irakasleekin harreman onak badituz, moralki onargarria den portaera erakusten ari naiz. Irakasleak pertsona gisa duen portaerak garrantzi handia du. Ez bere diskurtsoak, baizik eta bere portaerak; nola hitz egiten dien, nola tratatzen dituen, nola hartzen dituen iritsi berriak eta bazter-tuta daudenak... Garrantzitsuena ikas-tetxea komunikaziorako eta harreman-entzako espazio gisa hartzea da, eta irakasleak, etika jakin batean hezteari buruz gogoetarik egin ez badu, ez dago zereginik.

2.-Curriculumaren arloak berrikusi eta kulturartekotu behar dira, ikasleei errealitatea ulertzen lagunduz, beren kulturarekin autokritikoak izan daitez-en eta, gainerako kulturekin ere, kriti-

koak izan daitez-en. Horrekin batera, erabilitako material didaktikoak eta baliabideak berrikusi egin behar dira.

3.-Gauza bera esan dezakegu arlo pedagogikoaz. Ikasle atzerritarak iris-tearekin batera aukera historikoa eta polita dugu eskola etikoagoa, justua-go egiteko. Nik ez dut uste kulturarte-ko pedagogia existitzen denik. Estrate-gia berriak existitzen dira, antolatze-ko era berriak... batzuk eraginkoragoak eta beste batzuk ez. Merezi du gure eguneroko lanaren alderdi batzuk ber-raztertzea: tutoretzak, ikasleen talde-katzea, curriculumaren moldaketak... Esate baterako, nola ebaluatzen dugu? Ebaluazioaren azpian dauden elemen-tu etikoak zein diren planteatu behar diogu geure buruari, izan ere, elementu horiek ia judizialak dira. Ez dugu geure burua engainatu behar: ebaluazioa epaiketa bat da. Ebaluazioa gure lana-ren oso une garrantzitsua dela buruan baldin badugu, gure ikasleak sistemati-koki behatzera konprometitzen gai-tuela baldin badakigu, epai ahalik eta justuenak eman behar ditugula eta on-dorengo elkarrizketarako oinarriak ja-ri behar ditugula baldin badakigu, ho-rrek guztiak eraginkortasuna eta justi-zia hobetzea ekarriko du.

Mezua argia da: ikasle atzerritarren presentziari esker, guztientzako kalita-te handiagoa izango duen heziketa egi-teko aukera zabaldu zaigu, zientifiko-go eta inguru sozialaren beharretatik eta eskaerengatik gertuago dagoena. Horrek irakasleei eta hezkuntza siste-mari eraginkoragoak eta justuagoak izatea exijitzen die.

Baina bigarren mezua bat ere bada: bihar bertan has gaitezke lanean kultu-rartekoagoa izango den heziketa egi-teko. Horretarako, baliabide nagusia ira-kaslea dela kontuan izanda, horren kontzientziaziorik eta ahaleginik gabe, erretorikatik haratago joatea zaila izan-go baita.

Haurrek, elkarren arteko gatazkak haien artean konpondu behar al dituzte? Kasu horretan jazarpenak izateko aukera handiagoa al da? Zer egin behar dute irakasleek



Haurrek, elkarren arteko gatazkak haien artean konpontzen ikasi beharko lukete, irakasleok prozesu horretan paper garrantzitsua izango dugula ahaztu gabe. Ikusten duzuen moduan, galderari erantzutean *konpondu behar?* = *konpontzen ikasi* bihurtu dugu. Irakasleak, prozesu hezitzaile baten ondorioz, autonomoak bihurtu beharko lirateke gai horretan, hau da, haien bizitzan sortzen diren gatazkei, modu positiboan aurre egiteko gai izan beharko lukete. Gatazkak, haien kabuz konpontzen utziz gero, eta ikastetxean bizikidetzaren positiborako lanketa seriorik ez bada planteatzen, gizartean gatazkak konpontzeko nagusi den eskema erabiliko dute: IRABAZI-GALDU eta MENDERTZE- MENDETASUN erlazioak ezarriko dituzte. Zer ondorio ditu esandakoak?:

1.- Bizikidetzaren ikaskuntzak irakasleen eginkizunean dituen ondorioak hauek izan daitezke:

- Taldearen eraikuntzaz arduratzea: taldearen kohesioa, giro goxoa, errespetua... lortu.

- Gela era egokian antolatzea: ikasleen partaidetza zabala, arduren bana-



Blanca KEREJETA

IRAKASLEA, ETA ANIZTASUNERAKO ETA

BIZIKIDETZARAKO AHOLKULARIA

keta, metodologia egokiak eta interaktiboak, kooperazioa, ordutegiak...

- Diziplina demokratikoaren beharra eta zentzua lantzea: gelako arauak adostasunez lortzea, ondorio hezitzaileen beharra indartzea, irakasleen kohesioa eta koherentzia bultzatzea, gurasoen inplikazioa bultzatzea...

- Bizikidetzaren positiboa eta gatazkei aurre egiteko lanketak curriculumean edota Tutoretza Planean sartzea: gatazkei aurre egiteko moduko hezkuntza

ziurtatzea; sentimenduen eta emozioen hezkuntza txertatzea; komunikazio egokirako estrategiak lantzea; enpatiarri eta elkarrekikotasunari arreta berezia eskaintzea; pertsonen arteko harremanak zaintzea eta lantzea; giza eskubideen ulermena lortzea; oinarrizko baloreek gure geletan duten interpretazioaren inguruko hausnarketak egin ondoren, konpromisoak betetzen saiatzea; tratu txarrak eta biolentzia baztertzearen aldeko kanpainak egitea; ikasleen partaidetza bultzatzea, bai ikaskuntzaren inguruko ekintzetan, bai ikasleen arteko gatazkei aurreko egiteko bideetan ere.

2.- Ikastetxe guztietan bizikidetzaren positiboaren markoa eraikitzeak, zera eskatzen du:

Hasteko, argitu dezagun zer den bizikidetzaren positiboa: "Bizikidetzaren hitzarmenaren eta arauen menpean (esplizituak izan daitezke edo ez) elkarrekin bizitzearen artea da. Arau horiek norberak duen onena atera behar dute, harreman sozialak eta lan komunaren funtzionalitatea hobetzeko bidean", R. Ortega.

Bizikidetzaren Positiboak, norberari,

nortasunaren elementu garrantzitsuak ondo kudeatzea eta kontziente izatea eskatzen dio (autokontzeptua, autoestimua, empatia eta elkarrekikotasun moralak). Elkarrekikotasun moralaren bidez, guretzat aitortzen ditugun eta eskatzen ditugun eskubide eta betebeharrak besteengan antzemango eta bermatuko genituzke, modu operatiboan. Eta ez soilik ikuspuntu kognitibotik edo teorikotik, baita gure artean egunero sortzen diren harremanetan, komunikazioan eta eginkizunetan ere.

Baina, non ikasten da elkarbizitzaren? Askotan entzun dugu "tribu osoa behar dela haur bat hezteko". Erronka horretan guztiok gaude inplikaturik, eskolak soilik ezin baitu lan hori egin: familia eta ikastetxea oso elementu garrantzitsuak dira ikasleek elkarbizitzaren ikas dezaten. Bi zutabe horien artean elkarrekikotasuna eta oinarri sendoak adostea beharrezkoa litzateke, familia eta eskola ikasleentzako erreferente eta eredu direlako eta bi instituzio horietan hezten ditugulako. Bata bestearen kontra arituz gero edo bakoitzak bere bidea egiten badu, ikasleei eta seme-alabei ez diegu ez erreferentzia, ez mugargirik emango.

Ikasleek ordu asko pasatzen dituzte elkarrekin, helburu komunak dituzte eta guztiarekin garatu behar dira oinarriko gaitasunak, baita giza gaitasunak ere. Hori dela eta, Bizikidetzaren planak ezinbestekoak dira. R. Ortigaren esaldia ekarri nahi nuke hona: "Ikasleek zera ikasi behar dute ikasgelan eta ikastetxean: besteekin egiten eta esaten dietenaren, eta besteekin haiekin esateko eta egiteko jasaten dutenaren artean oreka etikoaren beharra. Urrezko araua, haiekin lortu beharreko gutxiengoa litzateke: 'Ez egin gainerakoei zuretzat nahi ez duzuna'."

3.- Zer egin dezakegu eta nola?

Gatazkak konpontzen eta gatazken aurrean zer egin dezaketen erakutsi behar diegu ikasleei: gatazkak, aurerrazteko eta ikasteko aukera gisa bizitzeko; gatazkak aztertzen; entzute aktiboa egiten; gure sentimenduak eta besteekin aitortzen, gure sentimen-

duak azaltzeko eta besteekin entzuteko jarrera positiboa izaten; emozioak eta sentimenduak autorregulatzen; empatia eta elkarrekikotasuna sentitzen; pertsonak eta gatazkak bereizten; besteekin ideiak errespetatzen; ideiak adierazteko arazoak azaltzeko ohitura izaten; posizioak eta interesak bereizten; elkarrizketaren oinarriak bereganatzen; negoziatzen; bitartekaritza oinarriak ezagutzen eta behar izanez gero bitartekarien laguntza eskatzen.

Baina, nola egin hori guztia?

Tutoretza orduetan oinarriko trebetasun sozialak lortzeko aukera izan dezakete ikasleek. Irakasleok ekintza praktikoen bidez, ikasleei hausnarketak egiten eta ondorioak ateratzen lagundu beharko genieke. Horretarako estrategia egokiak erabiliko dira: *Rol-Playing*, elkarrizketak, eztabaidak, metodologia kooperatiboak...

Edozein arlotan txerta daitezke gaitz horiek (gizartearen, hizkuntza, gaztearen, ingelesean, heziketa fisikoan...). Era teorikoan landutakoa, haien bizitzarekin lotzean, gaia barneratzen lagunduko diegu.

- **Gelako asanblada:** gune horretan gelako arauak adostu daitezke; autorregulazioa eta guztien konpromisoaren beharra landu daiteke, gelan hartu behar diren konpromisoak bete diren edo ez aztertu, gelako martxa baloratu eta proposamenak jaso... Hau da, ikasleentzako partaidetza aktiboa bultzatzea eta sentitzea. Astero egiten badira, gelako martxan aktiboki parte hartzea ohituko dira.

- **Adostasunak/gatazka txokoak:** Zer da adostasun txokoa? Kooperazioaren bidez, bi pertsonen arteko gatazkak ebazteko edo irtenbide egokiak bilatzeko erabil daitezkeen estrategia. Ikasleak bakarrik (laguntzarik gabe) aritzen dira adostasun txokoetan: partaideek txandatu hitz egingo dute "ahoa-belarria" erabiliz; gatazka gertatu denean nola sentitu diren azalduko dute; zer behar dituzten eta zer nahi duten (interesak) azalduko dute; irtenbideetan pentsatuko dute eta horien artean biezkat egokienak izango direnak

Ikasleek, gatazkei modu positiboan aurre egiteko gai izan beharko lukete. Gatazkak haien kabuz konpontzen utziz gero, eta ikastetxean bizikidetzaren positiborako lanketa serioerik ez bada planteatzen, gizartearen nagusi den eskema erabiliko dute



aukeratuko dituzte (adostasuna); konpromisoa, autonomia, irabazi-irabazi kontzeptua... landuko dituzte.

Irakasleak ez du parte hartuko, salbuespen batzuk kenduta, (desoreka handia dagoenean, esaterako). Beraz, ikasleentzako autonomia bultzatzen duen txokoa da. Ikasleek adostasun txokoaren martxa ezagutu behar dute (ez da inprobisatu behar). Horretarako saio batzuk erabiliko dira eta *Rol-Playing* bidez txokoaren prozedura landuko da. Irakasleak jarraipena (zeharka) egingo du, galderak eginez: Nola joan da? Zerbait adostu al duzue?...

- **Ikasle laguntzaileak:** Gela guztietan 3-4 ikasle aukeratuko dira (neskak eta mutilak). Ikasle horien batzarrak zikloka edo etapaka antola daitezke. Bilerak horietan koordinatzaile moduan irakasle bat egongo da, beti. Hainbat helburu jar daitezke: ikasle berrien harriera eta laguntza, gela guztietako bizikidetzaren behatzea eta hainbat proposamen egitea, arazoak dituzten ikasleei laguntza eskaintzea, entzutea, elkartzatzea adieraztea, besteekin sentsibiltateaz azaltzea... Orokorrean harremanak zaintzea eta prebentzioaren eta



Familia eta ikastetxea oso elementu garrantzitsuak dira ikasleek elkarbizitzen ikas dezaten.

Bata bestearen kontra arituz gero, ikasleei eta seme-alabei ez diegu ez erreferentzia, ez muga argirik emango

parte-hartzearen ikuspegitik lana egitea. Jarduera horiek funtzio prebentiboa dute eta biltzeko maiztasuna ikastetxe bakoitzean zehaztu behar da. Era berean, ikastetxean antolaketa izatea beharrezkoa da (irakasle arduraduna, bileren egutegia, prozedurak...).

- **Bitartekaritza.** Horri buruz aritzeko, www.inter-mediacion.com web ataritik ekarri dut definizioa: "Bitartekaritza lagundutako negoziazio sistema baten moduan definitzen da, baita ere. Horren bidez, gatazkaren zati direnek haien kabuz konpontzen saiatzen dira, inpartziala den hirugarren subjektu baten laguntzaz (bitartekaria). Horrek saioaren gidari lanak egingo ditu eta bi aldeentzat onargarria den irtenbidea topatzen lagunduko du. Erabaki hori bi aldeek adostuko dute, ez bitartekariak".

Galderaren bigarren zatia erantzunez eta hasieran esandakoari jarraituz, ez dugu ahaztu behar irakasleok prozesu horretan izango dugun papeara. Ikasleen arteko arazoa aztertzerakoan, estrategia edo bide egokiena zein den erabaki beharko litzateke:

- Jazarpena dagoenaren susmorik baldin badago, gai hori ezingo da gelan bere gordintasunean planteatu, beste bide batzuk jorratu beharko dira.

- Gaia gelako batzarrean azalduko balitz, une hori aprobetxatu beharko li-

tzateke enpatia lantzeko.

Ekintza hauek egin daitezke:

1.- Autobehaketa txostena proposatu: Ikasleen arteko indarkeria kasu bat denean, norberak duen erantzukizunaz jabetzeko positiboa izan daiteke. Partaide bakoitzak (erasotzaileak eta ikusleak) hausnarketak egiteko aukera du. Idatziz, ahoz edo bietara egin daiteke. Erantzun beharrek galderak hauek lirake:

1- Zer gertatu da zure ustez? Zergatik? Ondorioak: biktimarentzat, zuretzat, besteentzat...

2- Nola sentitu zara? Zergatik?

3- Nola sentitu dira inplikaturako guztiak? Zergatik?

4- Zer egin dezakezu gertatutakoari irtenbidea topatzeko?

5- Eta zer egin nahi duzu benetan? Zergatik?

6- Hartzen dituzun konpromisoak eta horiek martxan jartzeko epea, ebaluaketa... hemen idatzi.

2.- Idatzizko lana planteatu daiteke: "Zuek zarete mutil edo neska hori (jazarpena jaso duenaren azalean ipintzea eskatuko diegu). Konta ezazue zuen ustez zer gertatu den (haren azalean jarrita) eta nola sentitu zareten". Irakasleak idatziak jasoko ditu, irakurri eta gero, hainbat ondorio atera, eta hark aukeratutako testuen zatiak irakurriko ditu gelan. Ez gabiltza errudunaren bila, baina ikusi behar dugu, norberak gertaeren erantzukizuna onartu behar duela eta guztion artean irtenbidea eman behar diogula arazoari. Ondoren, irakasleak gai horren diagnostikoa egin beharko du, eta aurrera egiteko biderik egokiena zein den erabakiko du.

Aurreko puntuan azaldutako proposamenez prebentzio moduan funtziona dezakete, dena den, prebentzioa egin arren, edozein unetan gerta daitezke ikasleen arteko tratu txarrak. Kasu horietan kontuan hartu:

- Gaia zeharka lantzen dela (ez gara joango gelara errieta egitera, gure in-tentzio ona bertan behera gera daiteke-elako).

- Lanketa berezia beharrezkoa izango da, beti. Hiru aktore nagusirekin

egin beharko da: biktima, erasotzailea eta ikuslea. Tutorea bazara, laguntza eskatu (orientatzailearen laguntza eta zuzendaritzaren babesa izatea garrantzitsua eta beharrezkoa izaten da). Irakasleak, biktimaren ziurtasuna lantzeaz gain, taldean sortu diren erlazio maltzurak konpontzen lagundu behar du eta guztiek ikasi behar dute bertatik.

3.- Koloretako betaurrekoak: "Begiratzen den moduaren arabera, gauzak era batekoak edo besteak dira". Adierazpen horretan sinisten badugu, egoera gogorra izan arren, ondorio positiboak aterako ditugu. Gure jarrerak, hobetzeko gogoak, borondateak, ahaleginek... gure ongizatearen alde jokatzeko dute.

Ekintza egiteko, ikasleak txikiak direnean, betaurreko bereziak prestatuko ditugu (kartulina eta txarolezko paper arrosa). Betaurreko horiek jartzekoan, beste pertsonengan gauza positiboak ikusiko ditugu soilik. Egutero ikaskide baten alderdi positiboa behatu beharko da. Ikasgelan, ikasleen aulkia bi borobil erdietan jar ditzakegu, erdiak betaurreko ilunak izango ditu eta beste erdiak arrosak. Kristal ilunekoek egoera negatiboak adieraziko dituzte eta besteek, egoera horietan ikusi dituzten aukera positiboak aztertuko dituzte. Behin ekarpen positiboak entzun ondoren, kristal ilunekoek haien iritzia aldatu badute, betaurreko arrosak ipiniko dituzte.

4.- Tertulia dialogikoak. Liburu interesgarri bat aukera dezakegu eta hor sentimenduak, harremanak, bizitza, haserreak, gauza positiboak, errespetua, indarkeria... azaltzen joango dira. Horri buruz hitz egin dezakegu eta irakasleak ere parte har dezake.

5.- Antzerki foruma: 'Baketik' elkarteak antolatu duen Antzerki Forum ekintzaren bidez egoera kaltegarri bat antzeztu ondoren, hori lantzeko eta eraldatzeko aukera dute. Ikasleek gustatu ez zaiena alda dezakete, pertsona guztientzat positiboa izan dadin.

Prebentzio dinamika interesgarriak aurki ditzakezue orrialde honetan: <http://www.educarex.es/acosoescolar/img/cualidades.pdf> •

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.


otsaila

berriak

Elebitasunetik eleaniztasunera

Euskarazko irakaskuntza erronka berrien aurrean

Euskarazko irakaskuntzak erronka berrien aurrean duen egoeraren analisia egingo da otsailaren 20an Iruñean, NUPen. Nafarroako hezkuntza eragile anitzen artean sortutako dinamikari jarraipena emanez, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak eta, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek, egitarau oparoa antolatu dute egun horretarako, beste hainbat elkarte eta eragileren laguntzaz. Hik Hasi dinamizazio lanak burutzen ari da prozesuan, eta jardunaldietan ere, hala egingo du. Landuko diren gai nagusiak, hizkuntzekiko planteamendu berriak, ikastetxetako hizkuntza proiektuak, ebaluazioa eta urrats berriak izango dira.



Egitaraua

9:15ean Ongi etorria

9:30ean **Hizkuntzekiko planteamendua berritzeko beharra**

- Europako hizkuntzen erreferentzia markoa

Paul BILBAO. Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendaria.

- Nafarroako euskararen legea: arazoak eta aukerak

Roldan JIMENO. NUPEko zuzenbide publikoko irakaslea.

- Haurren hizkuntza gaitasuna ikuspegi psikolinguistikotik

Pablo SOTÉS. NUPEko psikologia irakaslea.

12:00etan **Ikastetxeko hizkuntza-proiektua**

- Hizkuntzen proiektua normalizaziorako bitartekoa

Matilde SAINZ. HUHEZI-MUko irakaslea.

- Hizkuntzen arteko harremanak

Lurdes ETXEBERRIA. Aretxaba-

letako Kurtzebarri ikastetxe publikoko irakaslea.

- *Hizkuntza-proiektua eta Normalizazioa lantzeko esperientzia*

Josu REPARAZ. Lizarra ikastolako zuzendaria.

16:00etan **Ebaluazioa eta urrats berriak**

- *Hizkuntzen ebaluazioaren garrantzia hezkuntza prozesuen hobekuntzan*

Arantxa URBE. Hik Hasiko kidea.

- *Euskararen eta gainerako hizkuntzen irakaskuntza psikologia eta soziologia kontuan izanik*

Maria-Jose AZURMENDI. EHUko psikologia irakaslea

- *Jardunaldian egin diren ekarpen nagusien laburpena*

Hik Hasiko Joxe Mari Auzmendik.

Izen ematea: 948 221 380 edota sortzen@arrakis.es

Haur eskola berria Maulen

Haur eskolaren eraikin berria ireki dute Maulen, bi egitura zahar bateratuz. 45 haur jasotzeko gaitasuna izango du eta 15 hezitzaile izango dira lanean. Eraikin berria Zuberoako Herri Elkargoaren ardurapean dago eta aurretik zeuden bi egitura zaharren bateratetik sortu da: Mauleko Udalaren ardurapean zegoen umetegiaren eta Haurra elkarteak kudeatzen zuen haurtzaindegia bateratetik, hain zuzen.

Bi hilabete eta erdi eta sei urte bitartekoak izango dira eraikin berriak hartu dituen 45 neska-mutikoak. Battitta Queheille Herri Elkargoko presidentek, xedea elebitasuna bultzatzea dela aipatu zuen irekieran.

Ikas.kom kongresua:

“Hezkuntzaren emaitza, guztion elkarlana”

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak abian jarri duen Ikas Komunitateen Programa eta horren Hedapen Plana ezagutzera emateko asmoz, otsailaren 18 eta 19an ikas.kom kongresua izango da Bilboko Euskalduna Jauregian, “Hezkuntzaren emaitza, guztion elkarlana” izenburupean.

Jardunaldiotan, **Michael Apple**, eskola demokratikoen inguruan mintzatuko da. **Miranda Christouk**, Chipreko Unibertsitatean Hezkuntzako Soziologiako irakaslea eta Generoan eta Hezkuntzan aditua denak, ‘Emakumeen ahotsak hezkuntzan’ gaia izango du hizpide eta **Ramon Flechak**, be-

rriz, ikasketa dialogikoa. Bertan izango dira baita ere, Harvardeko Unibertsitateko **John Comings**, etxekoen prestakuntza eta parte-hartzearen inguruan hitz egiten eta **Mikko Ojalak**, hezkuntza sistema finlandiarrari buruzko hainbat argibide emango ditu.

Horrez gain, hainbat Ikas Komunitateen esperientziak azalduko dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxeek eta estatuko zenbait autonomia erkidegotako hainbat ikas komunitatek ere. Kulturartekotasuna, elkarbizitza, eskola inklusiboa, irakurketa dialogikoa, parte-hartzea, talde interaktiboa eta beste hainbat gai jorratuko dira esperientziak partekatzerako orduan.



Jardunaldien helburua esperientzien trukaketa bultzatzea eta aurrerapausoak egitea izango da.

Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko, ondoko www.jardunaldiak.net/ikaskom webgunera jo dezakezue.

Paxkal Indo izango da Seaskako presidente berria

Paxkal Indo (Senpere, 1967) izango da aurrerantzean Seaskako presidente berria, Isabel Charriton ordezkatzuz. Urtarrilaren 19an, Kanbon elkartuz zen Ipar Euskal Herriko ikastolen konfederazioa, aurtengo norabidea eta aurrekontua onartzeko helburuz. Bertan, batzorde eragilea osatzeko falta ziren kideak izendatu zituzten, baita presidentea eta zuzendari berrien karguak ere.

Batzorde eragilea, Seaskako ikasle en bederlatzi gurasok eta langileen bi ordezkari osatzen dute. Presidente gisa Paxkal Indo hautatzeaz gain, zuzendari berria ere hautatu du Seaskak; Hur Gorostiaga izango da Pantxika Mendibururen lanak ordezkatzuko dituen.

Hiru urtean izan da Charriton Seas-

kako presidente, eta “arrazoi pertsonalak” medio, azaroan utzi zuen kargua. Urteak daramatza Ipar Euskal Herriko ikastolen alde lanean Indok, orain arte presidenteordea izan da. Orain ere horretarako lanean jardungo du eta batzorde eragilearen erabakiak eta orain arteko ildoak aurrera eramatea izango da bere lanaren helburua. «Ikastolen Kontseiluan hartzen dira etorkizunerako erabakiak eta horiek betearaztea izanen da nire eginkizun nagusia», adierazi du.

Erronka garrantzitsuak izango dira, irakasle postu berriak sortzea, horien kontratazio irizpideak hitzartzea edota hainbat egoitzatan dituzten arazoak kudeatzea, ikasgela berriak irekitzea, ikastetxe berriak sortzea eta zaharrak e-

raberritzea. Presidente berriak esan duenez, proiektu batzuk ere berritu beharko dira

Erronken artean, presidenteak berebiziko garrantzia eman dio euskararen lege estatusari, ofizialtasuna aldarrikatuz. “EEP duela bi urte sortu zen arren, joan den astean hasi ginen lanean”, esan du Indok. Egutegi edo lan fitxa modukoa osatu dute elkarlanean aritzeko: “EEPren bidez Estatuarekin lan egiteko molde berri bat sortu da, ikusi beharko da zer ematen duen”.

Euskal Haziak eta Biga Bai ereduarekin bere garaian sortutako Hiru Sareta plataforman ere pausoak ematen jarraitzeko prest agertu da Indo.

“Bultza Euskal Hezkuntza” lemapean, Taconerako urteroko hitzordua prestatzen buru belarri

Maiatzaren 18an izango da Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen XIII. Nazio Festa, kalitatezko euskal eskola publikoa aldarrikatu eta euskaraz aritzen diren ikastetxe publikoen bilgune izateko egitasmoa.

Urtero bezala, Iruñeko Taconera parkean izango da eta oraingoan, Biurdana institutuaren ardura izango da antolakuntza atazak betetzea.

Sortzen-Ikasbatuazek eskaini zuen prentsaurrekoan, Euskal Herriko euskaltzaleak parte hartzea deitu zituzten, “euskaltzale guzti-guztien ekarpena biltzeko asmoz, gure seme-alaben heziketarako baldintzak hobetzeko lan

egiten jarraitzeko”.

Festak gero eta erreferentzialtasun handiagoa lortu du urtetik urtera, eta aurten ere, ekitaldiz jositako eguna izango da. Goizean haurrentzako ekintzak izango dira: tailerrak, pailazoak, dantzak... eguerdian herri bazkaria izango da eta arratsaldean kontzertuek izango dute lekua.



Aurten, Rikardo Ederra Sortzen-ikasbatuaz sortzailearen omenezko krosa ere antolatuko da.

Eusko Jaurlaritzaren Bake Hezkuntzako planak "indarkeriari zilegitasuna kentzea" izango du xede

EAEko Giza Eskubideetan eta Bakean Oinarritutako Hezkuntza Plana abenduaren 26an onartu zuten. Joseba Azkarraga Justizia sailburuak, Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak eta Jon Mirena Landa Giza eskubiden zuzendariak eman zuten xehetasunen berri. Aurkezpenean, Bake planaren helburua “indarkeriari zilegitasuna kentzea” izango dela aipatu zuten.

Planak, eskolan zein eskolaz kanpo, 90 jarduera garatuko ditu lau urte-

tan zehar. Hori aurrera eramateko ia 6,5 milioi euro bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak 2011. urtera bitartean.

Irakaskuntzaren alorrean, “Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan Hezi” izeneko programa garatuko da datorren ikasturteko aurrera, eta Campos Sailburuak esan duenez, Ikastetxetan “indarkeriaren kultura” gainditzeko apustua egin nahi dute. Datorren ikasturtean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan zein

itunpekoetan bake eta giza eskubideen ikasgai martxan egongo da, eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskainiko da.

Datozen lau urteetarako, EAEko Elkarbizitza Behatokia sortzea, Elkarbizitza Plana lantzea, Elkarbizitza Behatokia ikastetxeetan sortzea, irakasle eta langileak trebatzeko kudeaketa unitate pedagogikoa sortzea eta bakean hezteko unitate didaktikoak sortzea aurrerikusi dute.

Ikastaroak

*Multimedia eta multimedia (Garatu 07-08)

Noiz: Otsailak 19- Martxoak 13, astelehen eta asteazkenetan, 17:30etatik-20:00tara. **Non?** Gasteizen, lekua zehazteke. **Maile:** Xabier Zabala. **Informazio gehiago:** http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/die11/eu_2070/cursos_garatu_2007_2008.html

*Jolas eta haurren garapena

Noiz: Otsailak 12- Martxoak 13, astearte eta ostegunetan, 17:30etatik-20:00tara. **Non?** Erribera kalea, 14, 1c, Bilbo. **Informazio gehiago:** http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/die11/eu_2070/cursos_garatu_2007_2008.html

*Ordenadorea, teknologia berriak eta biok: baietz ados jarri!

Noiz: Otsailak 26- Martxoak 11, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik-20:00tara. **Non?** Txurdinaga-Artabe BHI, Ornilla kalea, zg, Bilbo. **Maile:** Isabel Etxeberria Ramirez. **Informazio gehiago:** <http://www.haurreskolak.net/>

argitalpenak




Naturaren indarrak
Sarda Taldea
GAIAK

Liburu honetan, Grabitazio indar eta indar elektromagnetikoen inguruko hainbat azalpen ematen dira, fenomenoa, gertakariak eta beste hainbat teoria ere landuz. Maxwell, Newton eta Einstein zientzilaria handien biografiak eta planteamendu zientifiko eta filosofikoak ere, aztertzen dira •



Bagdadeko aurpegiak
Juan Cruz Igerabide
EREIN

Bi istorio txirikordaturik, bi denbora elkarriketan, bortxakeriaren gorrieriaz gandi. Iraganeko handitasuna, Sufi xumeen jakinduria... oraindik ere bizirik dago Bagdad bortxatua bizi diren izaki minduetan. Euria ari du Bagdadaren. Aurpegiak hodeien gainean, irribarre bihurtzeko ahaleginetan •



Numenak, alaba
Unai Busturia eta Julen Ribas
SAURE

Numenak, aita-ren ostean, Numenen bigarren liburua argitaratu du Saure argitaletxeak. Irak eta Harrespilek, Alaitz lur azpiko erreinutik libratzeko Mari aurkitu behar dute. Horretarako Pirinioetara hurbildu beharko dira, iraganen inkisizioak triskatutako mitoz eta sorginez betetako lurraldera •



Haur eta gazte literatura 2006
Irakur gida
HUHEZI

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Gida hau Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiak egin du, inguruko Udala Haur liburutegetako langile eta hezitzaileekin batera. 2006 urtean argitaratutako euskarazko liburuen artean sailkapena egin eta gomendagarrienak azaltzen dira bertan, orientagarria izateko xedez •



Agur Xiberoa, 3. alea
IKAS

Xiberoko Haur Hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleen aldizkaria da hau, ikastolen eta eskola elebidunen arteko proiektua, erreportajeez eta jokoz osatua. Aldiro aipagai berezia egiten da aldizkarian eta ale honetan Eguberriak munduko beste zenbait lekutan nola ospatzen diren landu dute, baita etxeko hondakinen tratamendua, herriko berriak, literatura eta beste hainbat gai ere •



Paularen seigarren atzamarra
Katixa Agirre
ELKAR

Paulak sei atzamar ditu ezkerreko eskuan; hatz txikiaren ondoan, beste bat baitauka. Eta horrek botere bereziak ematen dizkio Paulari, jendeak zer pentsatzen duen jakiteko ahalmena ematen dio, antena magiko baten moduan. Horrela, hainbat abentura biziko ditu neskatilak. Katixa Agirrek idatzi du testua eta Patxi Gallegorenak dira irudiak •

... nora joango gara?

BAIONAKO EUSKAL MUSEOA Euskal Herriari begirada lapurtarra



Baionako Euskal Museoa Baiona Ttipian dago, Errobi ibaiaren ertzean. Euskal Herria hobeto ezagutu nahi duen orok bertara gerturatzea besterik ez du eta ikasleentzat, eskaintza berezia dute. Museoko Hezkuntza Zerbitzuak, Argitu Hezkuntza Zerbitzuak, hainbat tailerren bidez Baiona, Lapurdi eta Euskal Herria ezagutzeko aukera ematen die ikasleei. Argituko arduradunek garrantzi berezia ematen diote ikasleek aurrez dakiten horretan oinarrituta ikasteari eta begirada hezteari.



Garai bateko Baionan eta inguruetan bizitza nolakoa zen ikus daiteke Euskal Museoan. Ia mende bateko historia du museo horrek: 1922an hasi ziren museoa prestatzen eta 1924an zabaldu zituen ateak. Dena den, 1989an itxi behar izan zuten, eraikinean, hau da, Dagourette etxean, zaharberritze lanak egiteko, eta 2001. urtera arte itxita egon zen. Gaur egun erakusketa iraunkorrak bilduma etnografikoak, historia arloko bildumak eta bilduma artistikoak biltzen ditu; guztira 20.000 objektu, 30.000 liburu eta 50.000 dokumentu ikonografiko.

Museoa 2007. urtetik aurrera, Baionako udaletxearen, Pirinio Atlantikokoetako departamentuaren eta Baiona-Angelu-Miarritze Hiri Elkargoaren artean sortutako elkarteak kudeatzen du.



Eta mementoz, ez dute kexatzeko arrazoirik, urtero 35.000 bisitari inguru jasotzen baititu museoak.

Museoko aberastasuna ikasleen esku

Mano Curutcharry eta Jacques Battetesti dira Baionako Euskal Museoko Argitu Hezkuntza Zerbitzuaren ardura-dunak. Mano Hezkuntza Ministerioko langilea da, lanaldi erdiz irakaslea da eta lanaldi erdiz museoan egiten du lan, alderdi pedagogikoa landuz. Argitu Hezkuntza Zerbitzuaren egitekoa museoeko tailerrak prestatzea baino harago doa: tailer pedagogikoak eskaintzen dituzte, irakasleak eta liburuzaingarrenak trebatzen dituzte hainbat ikastaroren bidez, eta material pedagogikoak sortzen dituzte. 1988an sortu zen Argitu.

Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitate mailara arteko ikasleak hartzen dituzte eta hainbat tailer eskaintzen dizkiete. Dena den, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak joaten dira gehien; museo bisitatzen duten lau ikasle hiru etapa horietakoak dira.

Arabatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroa Garaitik oso eskola gutxi joan dira orain arte; Argitu martxan denetik, talde bakarra baino ez da joan tailerren batean parte hartzera. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleak, Pirinio Atlantikoetako departamenduko ikasleak eta Estatu frantziarreko beste zonalde batzuetako ikasleak joaten dira batik bat.

Prozedura antzekoa da beti. Irakasleak Argituko arduradunekin jartzen dira harremanetan eta landu nahi duten gaia zein den azaltzen diete. Era horretan, denen artean erabakitzen dute zer eskainiko dieten ikasleei. Ondoren, ikasleak museoara joaten dira eta gela handi batean biltzen dira. Bertan museoan zer ikusiko duten azaltzen diete eta ondoren, museoeko langile baten laguntzaz egiten dute bisita. Gero go ikasitakoarekin beteko dituzten fitxak hartu, eta hezitzailearekin batera museoaz egutzera abiatzen dira •

BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

Quai des Corsaires, 37
64100 BAIONA (Lapurdi)
Telefona: +33 (0) 559 466 190
www.musee-basque.com



ARGITU HEZKUNTZA ZERBITZUA

Château-neuf
Paul Bert plaza
64100 BAIONA (Lapurdi)
Telefona: +33 (0) 559 590 898 / +33 (0) 559 466 185
argitu@musee-basque.fr

Oharrak:

- Tailer eta bisita guztiak euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz eskaintzen dituzte.
- Eskolek doako sarbidea izaten dute

Argitu Hezkuntza Zerbitzua

Tailerrak

20 tailer eskaintzen dituzte, gai zehatzen inguruan. Hauek dira aipagarrienak:

- Museoaren etxea antzina
- Iruditik objektura... museoaz ezagutzeko (haur txikiak)
- Marrac gaztelua XVIII-XIX mendeetan
- Pilota gogoan
- Estelak museoan
- Museoa, museologia, museografia (unibertsitateentzat eta lizeoentzat)
- Dantza museoan
- Materialari buruzko tailerra
- Altzariak
- Musika
- Karlismoa

Baionako udal artxiboek hezkuntza zerbitzua dute eta han ere ikasleak jasotzen dituzte. Tailer horiek museoari eta artxiboari buruzkoak dira:

- Aintzinako errejimena. Gizartea 1.789 aurretik
- Judutarrak Baionan. XVIII-XIX mendeak
- Atturriko portua Baionan. XVIII-XIX mendeak
- Baiona eta Euskal Herria bigarren inperioaren ondoren

Material pedagogikoak

Euskal Museoko Aberastasunak fitxak

16 fitxa didaktiko dira eta museoeko objektuak ezagutzeko balio dute.

Haurrentzako museoeko gidak

Frantsesez baino ez daude:

- Pilota gogoan, toute une histoire
- Bayonne, port de corsaires
- Coups de coeur pour le Musée

Maleta pedagogikoa. Baiona eta Euskal Herria XIX. mendean

Irakasleentzat prestatutako 300 orriko materiala da, azalpenak emateko 42 gardenki ere jasotzen ditu. Euskal Herria XIX. mendean nolako zen azter daiteke material horrekin.

atzeko atetik



Julio IBARRA LOPEZ

KAZETARIA

Behin baino gehiagotan errepikatzen nion esaldi hura neure buruari: Bai, bada posible.

Hamazazpi urte nituela nire bizitzan oso garrantzitsua izan den erabakia hartu nuen, eta nire kabuz hartu nuela aitortu nahi dut harro-harro. Euskaltegia joango naiz. Hori izan zen Bilboko Santutxu auzoko mutiko haren erabakia. Amaren aldetik familia euskalduna nuen; Erandio Beheko euskaldunak ziren aitite Julio eta amama Aurora. Aitite, gabarraria bera, Nerbioi ibaian gabarraz gora eta behera aritzen zen egunero, gero, *txo* moduan itsasoratu zen garai hartako merkanteetan munduari bira emateko, azkenean, buzo lana harentzat ogibide bihurtu zen arte.

Ogibide hark nire amaxu Auroritarren familia hemendik hara eta handik hona eramane zuen, eta urte asko eman zituzten Andaluzian zein Galizian.

Bai, bada posible

Amamak guztiz galdu zuen haren bizkaiera preziatua. Aititek, aldiz, ez zuen galdu, lanean, euskaldun bat ondoan izan zuelako beti. Buzoa zela eta, aitite Juliok konfiantzazko lankidea behar zuen urgainean zegoen itsasontzian, arnasa hartzeko kablea luzatzeko. Eta horretarako, Erandioko koadrilako Nemesio modukorik ez zegoen. Biak munduan zehar beharrean, eta beti etxeko hizkuntzaz, beti euskaraz. Hala ere, nire amak ez zuen euskararik ikasi. Hitz batzuk, esaldi batzuk, baina ez zuen euskaraz egiten, eta gaur egun ere, ez du egiten. Hori bai, gurasoen hizkuntzari errespetua eta maitasuna ez zien inoiz galdu. Frankoren diktadura, Euskal Herriatik urrun zeuden eskola haietako hezkuntza ereduak...

Nire aitak, gipuzkoar eta galiziar bikote baten semeak ere, euskaraz batere ez. Baina galiziar kulturaren eta euskal kulturaren zale amorratua da. Eta ni, hizkuntzekiko errespetu eta maitasun giro horretan hazi nintzen. Errespetua, maitasuna... Baina euskaldunon hizkuntza ez nuen ezagutzen eta niretzat gakoa den leloaleku guztietan ikusten nuen: "Euskara da euskaldun egiten gaituena".

"Europako herri zaharrenaren berba ez da nire erruagatik galduko", pentsatzen nuen. Institutuan bi ordu ematen zizkiguten astero euskara ikasteko,

baina ez zen nahikoa hain erdalduna zen ingurunean. Gehiago behar nuen eta Karmelo Gau Eskolara joan nintzen matrikula egitera. Ondo ikasi nahi nuen eta zertxobait banekien ere, lehen urrastean eman nuen izena. Institutuko klaseetatik irten, eta euskaltegiko klaseetara. Hamazazpi urte nituen.

Ez zen erraza. "Egunero klasera joan ta kolegak kalean..." kantatzen zuen Hertzainak taldeko Garik *Drogak AEKn* izeneko abestian. Baina ikasi nahi nuen. "Euskaltegian ere jende jatorra dago, geroago betirako lagunak izaten direnak", pentsatzen nuen. Denok batera ikasten genuen eta mintzapraktikan, ezinbestekoa genuen *euskaltxikiteoa*, ikasitakoa esateko lotsa kentzeko.

Apurka-apurka, milioi bat erdarakada esan ondoren, lehen esaldia, lehen hitzaldia, egin nituen euskaraz. Kristoren ilusioa, kristorena. Bigarren, hirugarren, zazpigarren urratsa... EGA. EGA prestatzeko ikastaroraino iritsi...

Eta ia-ia konturatu barik erdaratik euskarara eta euskaratik erdarara pasa automatikoki. Euskaraz pentsatzeko gai ere banintzen. Baita euskaraz amets egiteko gai ere.

Arazoi nuen neure buruari behin eta berriro errepikatzen nionean: Bai, bada posible.

Espainiarrak Amerikara iritsi zirenean, mundu zaharreko nazio guztietan baino hizkuntza gehiago existitzen ziren bertan. Kalkulu kontserbatzaileenen arabera, Amerikako iparraldean haien artean ulergaitzak ziren 500 eta 1000 hizkuntza artean zeuden, eta Amerika hegoaldean, ostera, bikoitza, gutxienez.

Iturria: Internet

k u x k u x e a t u
P r o i e k t u a k p a r t e k a t u
A r a k a t u

“klik”

“klik”



ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA


EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA ERRONKA BERRIEN TURREAN

JARDUNALDIAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

OTSAILAK
20

ANTOLATZAILEAK:



DINAMIZATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK: NUPeko filologia eta hizkuntzen didaktika saila, ikasle abertzaleak, euskal herriak bere eskola, nafarroako ikastolen elkarteak, diario de noticias, nabarrerria, abarzuza liburudenda, eitb.